


**1.992**

**LEITZA**

92

*tiburcio donearen festak  
abuztuak 10-15*



**C.D. AYRRERA K.E.**




**LEIZAOLA**



**BAZKIDEEK,  
DANTZARIEK,  
TXARANGAK eta  
FUTBOLARIEK**

**JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUETE**  
Herritar eta bisitari guztiei



*Leizako Udala*



**JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUETE**  
Herritar eta bisitari guztiei

# 1992 PESTETAKO EGITARRAUA

## Leitzar eta bisitari guztiei, agurra

Herriko pestak heldu direla aprobetxatuz, leitzar guztiak agurtu nahi ditut; eta baita Leitzako pestetan bizi ohi den umore eta jai giroa sortzen laguntzen duten bisitari guztiei ongi etorria eman ere.

Pestak herritar guztiei zuzuenduta daudenez, hala gazteei nola haurrei eta adinekoei, eta batez ere etxekoandreei, haiek bait dira etxeko lan guztien ardura hartzen dutenak, denek berdin gozatu beharko lukete. Ardura horiek denon artean banatu eta egun hauetan gainerako kezka guztiak ahaztuz pestan murgildu beharko genuke.

Aurreko urtean bezala, egun hauetan autoa ahal den gutxien erabiltzea gomendatzen dizuegu, horrela leku gehiago izanen dugu herri barruan.

Alkateak

*!!!Leitzar eta kanpoko lagun guztiei  
pesta zoriontsuak opa dizkizuegu!!!*

## Saludo a todos los Leitzarras y visitantes

Ante la llegada de las Fiestas Patronales, quiero aprovechar la oportunidad para saludar a todos los leitzarras y también a todos aquellos que nos visitan contribuyendo a crear el ambiente festivo y de buen humor que se acostumbra vivir en las fiestas de Leitza.

Puesto que las fiestas se organizan para toda la población, nadie debería quedarse al margen y deberían disfrutar por igual tanto la juventud como los niños y mayores y sobre todo las "etxekoandres" que son las que se cargan con todas las labores del hogar, compartiendo entre todos dichas tareas, y olvidándonos durante estos días del resto de las preocupaciones, para volcarnos en la fiesta.

Igual que el año pasado, queremos recordar que conviene hacer el menor uso posible del coche durante estos días, para así disponer de más espacio libre dentro del casco urbano.

El Alcalde

*!!!Os deseamos Felices Fiestas  
a todos los Leitzarras y visitantes*



Leitzako Udalak Aurrera Kirol Elkartearen laguntzaz  
1992ko Abuztuak 10, 11, 12, 13, 14 eta 15ean Tiburtzio  
Donearen ohoretan ospatutako pesten egitaraua.

Programa de festejos organizados  
por el Ayuntamiento de Leitza,  
en colaboración con el  
C.D. AURRERA, en honor de su  
patrono San Tiburcio y que  
tendrán lugar los días 10, 11,  
12, 13, 14 y 15 del mes  
de agosto de 1992.

1992 PESTETAKO EGITARAU

**2** ABUZZTUA  
AGOSTO

IGANDEA



**Goizeko 9etan**

Pestetako egitarauen banaketa eginen da. Leitzako gazteak eskean ibiliko dira etxez-etxe soinua joaz (gogoan izan dirua kaxa giltzatua dutenei bakarrik eman diezaiekezuela).

**ARRATSALDEKO 6,30etan:** Orquesta de Acordeones "ARALAR".

**ARRATSALDEKO 7,30etan:** Dantzaldia plazan NAYGI taldearekin.

**GAUEKO 11tatik aurrera:** dantzaldia plazan NAYGI taldearekin goizalde arte.

**9** ABUZTUA  
AGOSTO

IGANDEA

## UMEEN EGUNA



**Goizeko 8etan:** Diana Txistulariekin.

**Goizeko 9etan:** Zaldi txikiak (poniak) plazan.

**Goizeko 10,30etan:** Meza Nagusia "Korporazio" berria dantzari txikiak batera joanen delarik. "Korporazioa" Udaletxean bilduko da 10,15etan.


**Goizeko 11,30etan:** Umeentzat jokoak.

**Arratsaldeko 4etan:** Txirrindulariak herrian zehar. Ondoren zaldi txikiak plazan.

**Arratsaldeko 5,30etan:** Dantzari txikien saioa eta ondoren bonba japoniarrak.

**Arratsaldeko 7retan:** Herriko trikitalarien saio bikain bat. Arratsaldeko 8retan: Kalejira ARTADI txarangarekin.


**Arratsaldeko 8,30etan:** Dantzaldia HARITZA taldearekin. Gaueko 12etan: Berriz ere dantzaldi HARITZA taldearekin.



**10** ABUZZTUA  
AGOSTO

ASTELEHENA

## PESTA BEZPERA



**Eguerdiko 1,30etan:** Jubilatuentzat Bazkaria.

**Arratsaldeko 6,30etan:** Ezkila jotzea eta etxafuego botatzea pestei hasiera emanez. Ondoren kalejirak txistulari eta ARTADI txarangarekin eta buruhaundiak.

**Arratsaldeko 7,30etan:** Dantzaldia GAUBELA taldearekin.

**Gabeko 12etan:** Dantzaldia goizalde arte GAUBELA taldearekin.

**Goizeko 3retan:** ligatzeko ingurutxoa.



**11** ABUZZTUA  
AGOSTO

ASTEARTEA

## TIBURTZIO DONEAREN EGUNA



**Goizeko 7,30etan:** Txistulari eta ARTADI txarangak jotako Dianak.

**Goizeko 9etan:** Entzierroa eta zezenak plazan.

**Goizeko 10,30etan:** Meza Nagusia Korporazioa Aurrerako dantzariekin joanen delarik.

**Eguerdiko 12etan:** AURRERAKO ezpatadantzariak plazan.

**Ondoren** pilota partiduak.

**Arratsaldeko 5,30etan:** Zezenak plazan.

**Arratsaldeko 6,30etan:** KONPARSA ETA ERRALDOIAK.

**Arratsaldeko 8retan:** Dantzaldia GAUBELA taldearekin.

**Gaueko 12etan:** Dantzaldia GAUBELA taldearekin.






1992 PESTETAKO EGITARUA

**12** ABUZZTUA  
AGOSTO

ASTEAZKENA



**Goizeko 7,30etan:** Dianak, txistulari eta ARTADI txarangarekin.

**Goizeko 9,30etan:** Enzierroa eta zezenak plazan.

**Goizeko 11,30etan:** Herri Kirolak.

**Arratsaldeko 5,30etan:** Zezenak plazan.

**Arratsaldeko 6,30etan:** AURRERAKO Dantzarien saioa plazan. Ondoren bonba japoniarrak.

**Arratsaldeko 8retan:** Dantzaldia JOSELU ANAIK taldearekin. Gaueko 12etan: JOSELU ANAIK taldearen beste saio bat.

**13** ABUZZTUA  
AGOSTO

OSTEGUNA

**Goizeko 7,30etan:** Txistulari eta ARTADI txarangarekin dianak.

**Goizeko 9,30etan:** Entzierroa eta zezenak plazan.


**Goizeko 11tan:** IDI PROBAK (Karretera generalean).

**Arratsaldeko 5,30etan:** Zezenak plazan.

**Arratsaldeko 7etan:** Plazan ZALDI DOMA.



**Arratsaldeko 7,30etan:** Pilota partidu profesionalak AMAZABAL pilota lekuan.

**Arratsaldeko 8retan eta gaueko 12etan:** Dantzaldia AKELARRE taldearekin.



**14** ABUZZTUA  
AGOSTO

OSTIRALA



**Goizeko 7,30etan:** Dianak txistulari eta txarangarekin.

**Goizeko 9,30etan:** Enzierroa eta zezenak plazan.

**Goizeko 11tan:** Bertsolariak.

**Eguerdiko 12,30etan:** Herriko gazte eta elkarteak prestaturiko kaldereteak plazan.

**Arratsaldeko 5etan:** Zezenak plazan.

**Arratsaldeko 6,30etan:** UMEENTZAKO ANTERKI-TAILERRA.

**Arratsaldeko 8retan:** Dantzaldia GAUERO taldearekin.

**Gaueko 12etan:** Dantzaldia GAUERO taldearekin.

**15** ABUZTUA  
AGOSTO

OSTEGUNA

«EZKONDUTAKOEN EGUNA»

**Goizeko 7,30etan:** Dianak txistulari eta ARTADI txarangarekin.

**Goizeko 9,30etan:** Entzierroa eta zezenak plazan.

**Goizeko 11etan:** MUSIKA BANDA.

**Goizeko 11,30etan:** Larbando Futbol zelaian 3. mailako futbol partidua.

**Eguerdiko 2,30etan:** Aurrerako bazkideen bazkaria.

**Arratsaldeko 6retan:** Ezkonduen entzierroa eta zezenak.

**Arratsaldeko 7retan:** Ezkonduen ingurutxoak.

**Arratsaldeko 8retan eta gaueko 12etan:** Dantzaldia ARENAL taldearekin.



# PROGRAMA DE FIESTAS PATRONALES 1992

## 3 de AGOSTO - Domingo

Se efectuará el reparto de programas a cargo de los jóvenes del pueblo acompañados de música (solamente se debe entregar el dinero a aquellos que vayan provistos de caja precintada).

**6,30 de la tarde:** Banda de acordeones "ARALAR".

**7,00 de la tarde y 11 de la noche:** Bailables a cargo del grupo NAYGI.

## 9 de AGOSTO - Domingo

### «DIA DEL NIÑO»

**8,00 de la mañana:** Dianas a cargo de los txistularis.

**9,00 de la mañana:** Ponneys (caballos) en la Plaza.

**10,15 de la mañana:** Serán los mismos niños los que representen a nuestro Ayuntamiento, siendo elegidos éstos, entre los dantzaris pequeños. A esta hora y en la plaza se ofrecerá la vara del Alcalde a estos niños, dejando la representación del pueblo en sus manos.

**10,30 de la mañana:** La nueva "corporación" acompañada del resto de los dantzaris txikis, acudirán a la Misa Mayor.

**4,00 de la tarde:** Carrera ciclista. Después ponneys en la Plaza.

**5,30 de la tarde:** Actuación de los dantzaris txikis del Aurrera y a continuación bombas japonesas.

**7,00 de la tarde:** Actuación de los trikitalaris del pueblo.

**8,00 de la tarde:** Kalejiras a cargo de la txaranga ARTADI.

**8,30 de la tarde y 12 de la noche:** Bailables con el grupo ARITZA.

## 10 de AGOSTO - Lunes

**1,30 del mediodía:** Comida de los jubilados en su local.

**6,00 de la tarde:** TXUPINAZO.

Inicio oficial de las fiestas con repique de campanas y disparo del cohete. A continuación Kelejiras y cabezudos a cargo de la txaranga Artadi y los Txistularis.

**8,00 de la tarde y 12 de la noche:** Bailables con el grupo GAU BELA.

## 11 de AGOSTO - Martes

**7,30 de la mañana:** Dianas a cargo de los txistularis y la txaranga ARTADI.

**9,00 de la mañana:** Encierro y embolados en la plaza.

**10,30 de la mañana:** La Corporación acompañada por los dantzaris del Aurrera acudirán a la Misa Mayor.

**12 del mediodía:** Actuación de los ezpatadantzaris del Aurrera. A continuación partidos de pelota.

**5,30 de la tarde:** Vaquillas en la Plaza.

**6,30 de la tarde:** COMPARSA DE GIGANTES Y CABEZUDOS.

**8,00 de la tarde y 12 de la noche:** Bailables a cargo del grupo GAUBELA.

## 12 de AGOSTO - Miércoles

**7,30 de la mañana:** Dianas a cargo de los txistularis y la txaranga ARTADI.

**9,00 de la mañana:** Encierro y embolados en la plaza.

**11,30 de la mañana:** HERRI KIROLAK (Deporte rural).

**5,30 de la tarde:** Embolados.

**6,30 de la tarde:** Dantzaris del Aurrera. A continuación bombas japonesas.

**8,00 de la tarde y 12 de la noche:** Bailables a cargo del grupo JOSELU ANAIK.

## 13 de AGOSTO - Jueves

**7,30 de la mañana:** Dianas a cargo de los txistularis y la txaranga

ARTADI.

**9,30 de la mañana:** Encierro y embolados.

**11,00 de la mañana:** Prueba de Bueyes en la carretera general.

**5,30 de la tarde:** Embolados.

**6,30 de la tarde:** bombas japonesas.

**7,00 de la tarde:** Doma de caballos en la Plaza.

**8,00 de la tarde y 12 de la noche:** Bailables a cargo del grupo AKELARRE.

## 14 de AGOSTO - Viernes

**7,30 de la mañana:** Dianas a cargo de los txistularis y la txaranga ARTADI.

**9,30 de la mañana:** Encierro y embolados.

**11,00 de la mañana:** Bertsolaris.

**12,30 de la mañana:** Calderetes en la Plaza.

**5,00 de la tarde:** Embolados.

**6,30 de la tarde:** Taller de teatro para crios.

**8,00 de la tarde y 12 de la noche:** Bailables a cargo del grupo GAUERO.

## 15 de AGOSTO - Sábado

### «DIA DE LOS CASADOS»

**7,30 de la mañana:** Dianas a cargo de los txistularis y la txaranga ARTADI.

**9,30 de la mañana:** Encierro y embolados.

**11,00 de la mañana:** Banda de Música.

**11,30 de la mañana:** Partido de fútbol de 3ª división en Larbando.


**2,30 de la mañana:** Comida de los socios de Aurrera.

**6,00 de la tarde:** Encierro de los casados y embolados.

**7,00 de la tarde:** Ingurutxo de los casados.

**8,00 de la tarde y 12 de la noche:** Bailables a cargo de la orquesta ARENAL.

## 1992 PESTETAKO EGITARAUUA



### OHARRAK

1. INCANSABLES txarangak, egunero, eguerdi, arratsalde eta gabean herriko bazterrak alaituko ditu.
2. Buruhaundiak eguerdiero aterako dira txarangarekin batera.
3. Udala ez da kargu eginen zezenetan gertatzen diren istripuetaz.
4. Egitaraua, borondatearen truke, udaletxean eta tabernetan zabalduko da.
5. Aurten PELOTA BERRIK antolatutako pilota partidu profesionalen berri ere izango dugu esku programen bidez, bertan lekua, ordua, e.a. zehaztuz.
6. Zezenetan dabiltzenei eskapa bidea erresagoa egiteko, barreran gainean inor ez eseritzea esketuko genuke.
7. Kalderetea osatzeko behar diren gaiak bakoitzak bereak eraman beharko ditu.



### AVISOS

1. La charanga INCANSABLES animará el pueblo todos los días de fiesta mañana, tarde y noche.
2. Los cabezudos saldrán todos los días junto con la charanga.
3. El Ayuntamiento no se hace cargo de los accidentes que ocurran en las vaquillas.
4. El programa de fiestas se podrá obtener, a cambio de la voluntad en el Ayuntamiento y en los bares.
5. Así mismo se informará debidamente sobre los partidos de pelota profesionales, organizados este año por PELOTA BERRI, mediante los correspondientes programas de mano.
6. Para mejora del espectáculo taurino, rogamos al público asistente que no se siente encima de las barreras.
7. Cada cual se ocupará de los ingredientes necesarios para preparar su calderete.

# LEITZA '92

## PLAZAOLA

PLAZAOLA 14zk.



Tiburcio Donearen Festak Abuztuak 10-15.

# TIBURZIO DANEAREN

HEZTAK 10-15  
LEITZA 92

PLAZOLA

Leizoko Aldizkaria



# BEGIRADA OPAROA

Une niminoetan

sortu

piztu

jaio

ber sortu

ber piztu

ber jaio

dardarizoak

artegaz josi zidaan

arima;

bere-egarriz abiatu ninduan

hire bidexkak xistatzera:

gizon-gizen atxaurerik?

Beldurraren atarian

Kuku-lorea lez

herabea garaite,

ñir-ñirrak mintzo,

ele xumeak,

koldarrak,

artega berriaz apainak;


Egun,

gogoeta oro

hire izate gorenak

blaiturik

eskeintzen diat.



## ZORTZIKONEKO VICENTE HUARTE: BIZITZA ETA BERTSOAK

Txinako Wuhu hirian Obispo egin zuten leitzar jesuita zen **Jose Vicente Huarte**. Leitzako kale baten izena ere, «**Obispo Huarte**» delakoa, harexen sonari zor zaio. Entzute haundikoa izandu zen jesuiten artean. Haratx zer dion elizako paperetan haren jaiotz agiriak:

*"A las dos de la mañana del día 9 de abril de 1877 nació y el mismo día yo el infraescrito Abad de la Iglesia Parroquial de esta Villa de Leiza bauticé a José Vicente, hijo legítimo de Martín Antonio Huarte y Josefa Antonia San Martín. (...) abuelos maternos Juan Lorenzo y Manuela Orquín; maternos Lázaro y María Ignacia Zabaleta (...)"*

*D. José Vicente Iribarren, Abad*


Leitzako abade zenaren izen berbera para zioten. Bataioko uretik beretik zekarren, beraz, apezgorako bedeinkazioa. Baina izen hutsak ez du inor egiten Obispo. Izanetik ere beharko da zerbait. Eta, Leitzan inork bada eta, Vicentek asko zuen horretatik. Leitzako familirik aberatsenekoa baitzen. Hain zuzen ere, «**Zortziko**» esaten ziotenaren semea. Eta izengoiti hori, oso oker ez banaiz, diruaren ugaritasunak sortua da, Leitzan eta bestetan ere. Hamar zentimoko txanponari deitzen zitzaion «**zortzikoa**» edo «**zortzimaikoa**». Hortatik «**Zortziko**» goitizena, jaun eta jabe izanik «zortziko» guziak dantzan paratzen zituen herriko merkatari bakarrari.

Leitzan, elizako pareretan goian ageri den **Martin Antonio Huarte** horixe zen «**Zortziko**». Leitzako merkataraitza guzia bere mende zeukan. Gaur **Oyalde** eta **CAN** dauden etxe horrek «**Zortzikonea**» zuen izena garai hartan, eta hortxe izaten zen ingurumari hauetako «*supermerkatu*» bakarra. Sekulako tokiak zituen etxea omen zen «**Zortzikonea**»; Leitzan zen hauendiena; eta Martin Antoniok hala esaten omen zuen: etxea egiten hasi zenean baino diru gehiago zuela bukatu zuenean.

Leitzan bertatik ezik, **Ezkurretik**, **Eratsundik**, **Uitzitik**, **Aresotik**, **Gorrititik**, **Berutatik**, **Labaindik** eta inguruko herri koxkor askotatik **Zortzikonera** etortzen zen jendea bere salerosketak egitera. Ez zen jenerorik, **Zortzikok** edukitzen ez zuenik: denda, taberna, labaderoa, pentsuk, idi pareta eta gurdia hornidurak herritara banatzeko, ikuluko azindak:

behiak, zekorrak, zerrik,... hamaika ume jostatzen zeneko rielak gorotza ikuilutik goroztegira ateratzeko, alorrak nonhai,... Hark izaten ez zuenik ez omen zen.

Horik guzik aski ez, **Goiko Errotan** egiten zituen herri guzira irina eta ogia. Eta hango ursaltoaz baliatuz, 1905ean **Zortzikok** berak sortu zuen Leitzarako argi indarra lehenbiziko aldiz. «**Central Eléctrica San José**» zuen izena. Gutxi goitibeiti 50 zaldiko indarra zuen, eta halare herriko etxe gehienetara ailegatu egiten zen argia.



*Gorputz eguneko aldarea Zortzikoneko atarian paratzen zen. Elizan ere, aldare bat eta palio bat Zortzikonak dira. San Jose egunean berriz, pobreei bazkaria ematen zien Zortzikok.*

Gauzak horrela, pentsatu besterik ez, zein izanen zen gure **Jose Vicente Huarte** sonatua: Leitzan eta inguruko herrietan jaun da jabe zeneko familia aberats bateko seme. Hau ikusita, euskal esanera zahar batek dioena datorkit gogora: «*Santutasuna diru: lautatik hiru*». **Jose Vicentek** hortatik asko bazuela, dudarik ez. Baina, diruaz ganera, berezko ere izanen zuen zerbait. Bestela ez zuten Txinan obispo eginen.

Ikasten lan asko egina zen. Ume umetatik, oso txintxo eta saitua izandua. Labor esateko, hona ondoren «**Obispo Misionero Modelo, Mons. Vicente Huarte**» izeneko liburuska batean hartaz esaten diren hitz batzuk. Bilboko «**José A. de Lerchundi**» inprentan jesuitek inprimatua da liburuki hau, eta «*Cultura Misional S. A.*» delako etxeak argitaratua 1935an:

*"Puede o debe con toda razón afirmarse de Monseñor Huarte que no fué un Obispo improvisado. Su formación científica se desarrolló en España y sólo un complemento recibió en China. (...)"*

*Sobre la fe católica arraigada entre las montañas navarras de Leiza, el bachillerato hecho en el Colegio de Orduña, puso amplias bases de*

educación científica y religiosa. Los estudios de la Compañía, en particular los filosóficos y los teológicos, cursados con método y celo, favorecidos por un talento nada vulgar, le capacitaron para el profesorado.

Enseñó filosofía y teología en el Colegio Máximo de Oña. (...) Los que fueron sus subordinados en el teologado de Oña recuerdan con agrado al que fué su Ministro y dirigió la Procura.

Finalmente su formación teológica y filosófica, su experiencia en el gobierno y la administración, debieron llamar la atención de sus superiores de Misión para que presentaran su candidatura para primer Vicario Apostólico de Wuhu (China)".

Txinara 1916ko azaroaren 5ean iritsi zen, hemengo misiolarien hirugarren joanaldian. 1916tik 1923ra misio lanetan ibiliko zen han, **Nanking**, **Tchaoshien**, **Taipingfu** eta inguruko herrietan. Azkenean, 1922ko irailaren 24ean, **Wuhu** hiriko **Obispo** egin zuten.

Leitzako seme bat Obispo egin zela eta, hurrengo urtean bertso paperak ere atera zituen norbaitek. Aurreneko bertsoak hala dio behinpein: «**Ogeigarrengo gizaldian da ogeitairugarrena**». Beraz, 1923an paratuak dira ondoren datozen bertsoak. Dударik ez, **Vicente Huarteri** buruzkoak direla. Baina, nork para zituen, ez dut inon bilatu zuztarrenik. Baliteke, Obispoaren anaia **Jose Luis Zortzikok** aginduta edo, horretan aritzen zen artistaren batek paratuak izatea.

Bertsoak, bistan da, txukun eta aise paratuak daudela. Bere lana ongi ikasia zuen bertso paper haiek atera zituenak. Horrez gainera, gaur oso nekez erabiltzen den bost puntuko neurkera dute. Musikaren tankera eta melodia ere, azken bertsoleerroko errepika horrekin, hagitz xoragarri egiten da. Hara nola den bertso bakoitzaren musika. **Pontxito Irurtiak** egina duzu partitura:

Dударik ez bertsoak hagitz ezagunak egin zirela Leitzarren artean. Leitzar askok buruan baitauka oraindik bertso hauetakoa bat edo beste. Niri **Joxemanuel Arribillaga Bordaberrikoak**, **Bittorio Alkoz Martikonekoak**, **Miel Ramon Zabaleta** attuna **Errezumekoak**, **Tomas Cestau Gazpillotxikikoak** eta beste askok kantatu dizkidate, baina, inork ere ez **Miel Luis Cestau Gorritinekoak** bezain ederki hamabi bertso errezoan, eta horrexegatik paratzen dituk haren ahotan:

1

**Ogeigarrengo gizaldian da Ogeitairugarrena,**  
Urte onetan presta dezagun  
Kontzientzireko barrena.  
Orretarako nere burua  
Sartu bear det aurrena.  
Ekusirikan gonbertitzeko  
Premi aundian gaudena:  
Saiatu al den lelana!

2

**Obispo jaun bat berria degu Naparruako Leitzetik,**  
Gauza askotan informatzen naiz  
Orren kontuak leitzetik.  
Ziñatu eta erreztuaz  
Ateratzean etxetik.  
Zeruko aitak libra gaitzala  
Pariseuen trantzetik:  
Eskatzen det biotzetik!

3

**Naparruako Leitzan jaiotzen Aita Vicente Huarte,**  
Aita Santuen bendiziotik  
Badauka zerbait suerte.  
**Jesuitetan** serbittu zuen  
Txinan ibilli zan arte.  
Gero batxiller titulütikan  
Gorago jaso digute:  
Obispo nonbratu dute!





"Jose Luis Zortziko, bere emazte eta seme alabekin".

4

**Oiek lau anai mixiolariak**  
 Jesusen lagundikoak  
 Txinan ibilli ziran ezkero  
**Bat** eraman Jaingoikoak;  
 Beste **bi arreba moja** sartuak,  
 Jakinduri aundikoak;  
 Beste **anai bat abogadua**:  
 Lan asko egindakoak:  
 Ez dira nola naikoak!

5

Oiek len kaputxinok bezela  
 Saiatzen dire ostera,  
 Jangoikoaren serbitzurako  
 Animak irabaztera,  
 Moja mixekordiazkoak  
 Karidadeak uztera,  
 Karidadean dabilten aurrek  
 Mantendu eta jaztera:  
 Eskolan erakustera!

6

Ministro askok berritutako  
 Ebanjelioko itza:  
 Bataiotikan garbitzen dela  
 Animak daduken gaitza.

Gaixtoak onak desegiteko  
 Munduan beti dabilta.  
 Kulparik gabe galdu bearra  
 Inozentien bizitza:  
 Ez al da negargarrizta!

7

Lengo denboran erlijioa  
 Modu onean asi zan.  
 Igande-yayak santifikatzen  
 Nork daki nola bizi zan.  
 Bakoitza geren estaduetan  
 Gabiltzen kristauen gisan.  
 Errespetorik ez da galduko  
 Komentuan da elizan:  
 Ez kuidadorikan izan!

8

Zenbat maitasun agertzen zaion  
 Famili ondradu bati.  
 Eztakit ori buruan ongi  
 Sartuko zaion zenbaiti.  
 Mundu ontako gurutze danak  
 Albalitzezke ameti.  
 Pazientzien eramattea  
 Ez det gauz oberik senti:  
 Sufritzen balitza beti!

9

*Aitak eta amak artu dezagun  
Guraso onaren antza.  
Seme alabak zintzo azitte  
Familiaren onantza.  
Bhurriari kentzen bazaio  
Gaixtakeriko zalantza.  
Konfesio ta penitentzittik  
Zeruetako librantza:  
Aalaxe dut esperantza!*

10

*Urte onetan limosnatxo bat  
Elizen egin deguna,  
Katolikoak biajatzeko  
Eroso datorkiguna.  
Elkarrentzako gure biotza  
Izan dezagun biguna.  
Projimoari ongi egiña  
Baliatuko zaiguna:  
Etorriko da eguna!*

11

*Lengo denboran jentillarekin  
Ez dira lasai egondu.  
Fede gabeko salbaje oiek  
Bestela zeñek bigundu.  
Oraindik ere nai littuzkea  
Gaixtoak direnak ondu.  
Obligazioa den bezela  
Guk emendikan lagundu:  
Ojala egiñen bagendu!*

12

*Euskalerriko leku askotik  
Txinara misiolariak.  
Emen ederki predikatuta  
Yoan dire sermoilariak.  
Konbertitu ta salbatzegatik  
Asko anima eriak.  
Bere kontura nai dituela  
Guzien juzkalariak:  
Badaki bertsolariak!*

**Antonio Zavalari** Javierko Santutegira eta **Arantzazura** frailei bidaliak omen ditu behiala bertso hauek **Miel Luis Cestauk**. Baina, Aita Zavalaren depositua, ni bezelako askorentzako zazpi mila giltzez itxia izaten da. Hark jakinen du, seguraski, bertsook nork para zituen eta guzira zenbat ziren.

Ni **Bittorio Martikonek**okin hizketatu nintzanean sail honetako hirugarren eta laugarren bertsoak besterik ez zizkidan kantatu, baina, **Olasoko Joxemari Aleman** apezak 1971. urtean hartu zizkion bertsoetan, hemen ageri ez den beste bertso bat badator, lerro baten hutsarekin:

13

*Seme abillak azaldu dira,  
Euskalerriko lurretan,  
Txinan, Indian ta Italian  
Pake gizonak gerretan,  
Ixtimatuak izandu dira  
Munduaren bazterretan,  
.....  
Siñale dira obretan:  
Zeñena daude zorretan!*

Bertso sail honetako beste bertso bat, **Joxemanuel Arribillaga Bordaberrikoak** beste inork ez dit kantatu. Hauxe duzu bertsoa:

14

*Dizdiz egiten duen antzera  
Egusentian izarrak,  
Guri olako amorua  
Digute jakintsu zarrak.  
Oien esanak egiñez gero  
Ez giñazke oso txarrak,  
Munduan asko ibillitako  
Predikatzaile azkarrak:  
Geienak euskalduntarrak!*

Dena dela, bertso geiago behar dute. Hau ez baita inondik ere bertsoak bukatzeko tankera.



"Zortzikoneko atarin: lau anaiak. Aita Vicente eta Jose Luis abogadua eserita. Gabriel eta Eusebio jesuitak zutik".

Esan bezela, gure predikatzaile azkarra, 1922ko irailaren 24ean, **Wuhu** hiriko **Obispo** egin zuten, eta handik hiru urteren burura, 1925.ko Buruilaren 19an **omenaldia** egin zioten **Leitzan**. Iruñeko Artxiboak ikusteko betarik ez dut izandu, baina, orduko kazetek ekarriko zuten seguru aski. Udaleko Artxiboan berriz, 1925.eko Buruilaren 5ean egindako batzarrean, besteak beste, honako hauxe esan zen:

*“Comisión Permanente: El Sr. Presidente expuso a los concurrentes que tiene noticias fidedignas de que el próximo día 19 a las 7 y 1/2 horas, seremos honrados con la visita del Ilmo. Sr. Obispo de Sanghai D. Vicente Huarte San Martín, hijo prelado de esta villa y el único que ha llegado a tan alta dignidad, y propone realizar un homenaje en su honor cual se merece”.*

1925.eko Buruilaren 14eko Udal Batzarrean jasotako aktan berriz, hauxe esaten da:

*“El Sr. presidente expuso que como a todos consta, se ha procedido a varias reuniones del Ayunt<sup>o</sup> Pleno con motivo de la visita a esta Villa del Iltrmo. Obispo D. Vicente Huarte, y habrá que acordar en consecuencia. Enterados los concurrentes y acogiendo el entusiasmo demostrado por el público, se acordó: se prepare un arco con su dedicatoria, en el puente de Amazabal, llamando al vecindario por*



Obispo Huarteri egin zitzaion ongi etorria, 1925-11-19an.

*Bando para que sea un entusiasta homenaje, acudiendo a su recibimiento, y demás funciones cívicas y eclesiásticas, colocando las colgaduras en sus casas; que se celebre un **banquete popular**, invitando a todos los hijos del pueblo, Sacerdotes celebrando una **Misa Pontifical**; que se haga una **limosna de cien pesetas** para las misiones, y proponer al Ayunt<sup>o</sup> Pleno la colocación de una **lápida** conmemorativa en la casa nativa del Iltre. hijo **Huarte San Martín**”.*

Udaleko aktak esaten du **Amazabalko** zubian para behar zutela arku, baina, behar bada gero lekuz aldatzea erabaki izanen zuten, prozesioa luzatzeko edo. Horrez gainera, gertaera honi buruz, hala esan zidan behin **Paulina Erbitik**, haren aita **Axintxio Olaberriko** zenaren istorioak biltzera joanda:


*“Obispo Huarte Txinako Wuhutik etorri zen egunean, **Olaberrin** erramu ostoz egindako **arku** bat para beharra zuen **Axintxiok**, orduan kontzejal baitzegoen. Para omen zituen nola edo hala. Baina arku txukuntxeago paratzera igo omen zen gure amona zena (amaren ama), eta egurrezko baranda hautsi, lurrera erori, eta hartatik hil omen zen. Eta gero, **Obispo Huarte** horrek berak ospatu omen zituen gure amona zenaren heriotzeko elizkizunak”.*

Eta hala izan liteken gauza da. Udaleko paperak diotenez, **Buruilaren 17an** hil baitzen **Paulina Miranda, Olaberriko Axintxion** andren ama. Eta elizako paperak diotenez berriz, bihamonean, **Buruilaren 18an** hilobiratua izan zen, hain zuzen Obispo Huarteri Leitzan omenaldia egiteko bezperan.

Lehen hitzegina zuten bezela, 1925.eko Buruilaren 26ko Udal Batzarrak, hauxe erabaki zuten:

*“El Sr. Presidente dió cuenta del acuerdo tomado en sesión de la Comisión permanente de 14 del actual, proponiendo la colocación de una **lápida** conmemorativa en la **casa nativa del Iltre. Obispo Vicente Huarte San Martín**, hijo prelado de esta villa”.*

Hurrengo orriko argazkian ikusten den bezela, **Zortzikon etxen**, aurreko karan, aurreneko eta bigarren balkoien erdian para zuten **Obispo Huarte** zenaren **oroitarria**. Gero etxea bota zutenean, Udalak jaso zuten **oroitarria**, eta urte askoan Udaletzeko eskailerapean egondu omen zen. Han ikusita, Obispoaren oinordekoren batek eskatu izan behar zion Udalari, baina, ezetz, hura Udalaren patrimonioa zela eta, ezin ziotela eman inori. Ni ibili naiz Udaletxean bateri eta besteri galdezka, **oroitarri** hari argazki bat ateratzeko asmoan, baina, ez dit haren berririk inork eman. Noski Udalaren patrimonioa zela, baina, harrapazak orain!



Zortzikonea. Horra plaka bi balkoben erdin.

Leitzara bere bisitaldia egin eta atzera Txinara jo zuen Obispo Huartek. Handik urte batzutara, 1933ko Ilbeltzaren batean, **Victoriana de Larrinagari** idazten dion karta batean, «ANGELAS DE LAS MISIONES» izeneko liburuki baten sarreran datorrenean, honela dio:


WUHU, 1 de Enero de 1933  
Sra. Dña. Victoriana de Larrinaga,  
Vda. de Basabe

Señora y bienhechora nuestra:

"(...) hoy es completo mi gozo y satisfacción al decirle que por fin, terminadas ya todas las obras, hemos fijado el día de la apertura del Colegio. (...) cuando estuve en Elorrio, hace ya más de siete años, me habló V. que deseaba saliesen de su Colegio, sobre todo, normalistas. (...)no sólo cumplo la promesa que le tengo hecha de celebrar cada semana una Misa por V. y de encomendarla en todas mis oraciones y obras espirituales, sino que las Reverendas Madres y las alumnas todas lo hacen y lo harán mientras dure este Colegio; y rogarán al Señor derrame sus bendiciones de vida eterna, sobre el Alma de la noble y generosa bienhechora, que sin

más interes que el de la gloria de Dios, propagación de la Santa Iglesia y salvación de las almas les ha regalado ese magnífico colegio donde educarse".

Andre honek, itxura denez, diru puska haundiak zituen jesuitei emanak Wuhun mojen kolegioren bat egiteko, eta horregatik ematen dio haren berri xehero kartan.



Monseñor Zanin, en su visita al Seminario Ningkoufu. A su derecha Mons. Huarte.

Batipat teologiari eta filosofiari emana bizi izandu omen zen Txinan. Aita **Beraza, Mella, Balmes, Kempis** eta gisakoen liburuak omen zituen gogoko. Bertako eta kanpoko periodikoak egunero leitzen omen zituen, eta uda partean ehun karta baino gehiago idazten zituen asteak izaten omen zituen. Txinako usuarioak eta «**Kode Zibil**» sonatua errotik aztertu omen zituen, eta kritautasuna hango legetara egokitzerakoan **Mateo Ricci** italiar jesuitaren teoriak hartzen omen zituen ereditako. Ricci honen ereduak gatazka haundiak sortu zituen jesuiten artean, hango kulturarekin nahasian kristau legea arriskuan paratzen zuelako. Hasieran aipatu dugun liburukian hala dio **José Dorronsoro** jesuitak leitzar jakintsuari buruz:

"Mons. Huarte en la Jerarquía eclesiástica gozaba de prestigio universalmente reconocido; era en una palabra personalidad destacada. (...) Se ha comparado bajo diversos aspectos con el Primer Concilio Niceno (...) En las Actas del Concilio aparece su nombre en la Comisión Segunda encargada de estudiar el Libro II y el Libro V. En general, a juzgar por la fama que aun años después se ha conservado de sus intervenciones, éstas debieron de ser por demás felices."

Kultura desberdinak ere hagitz maite omen zituen **Aita Vicente Huartek**:

"Un dato más, relativo a su amor a la cultura. A la edad relativamente avanzada en que llegó a China

*logró hablar con expedición el francés e italiano y poder leer corrientemente libros en inglés. Huarte había leído muchos libros chinos ya hablaba con facilidad el chino(...) Su memoria que sobrepasaba el nivel ordinario, con poder retentivo nada común, le traía a la conversación versos y párrafos de autores latinos. Dichas cualidades mentales se completaban con su amor al estudio, su curiosidad por lo nuevo y oculto”.*

Bere izakerari eta birtutei buruz, berriz, honako honela mintzatu omen zen Shanghaiko «**Journal**» izeneko kazeta, Obispo Huarte hil zenean:

*“Fino, avisado, prudente, partidario del apostolado sólido, es decir silencioso y poco lento. (...) La Misión de Wuhu pierde un jefe distinguido, sus colegas y vecinos un consejero sagaz, siempre seguro, los que tuvieron la dicha de conocerle de cerca, un amigo fidelísimo.”*

Fede gaitzeko gizona omen zen. Mistiko hutsa. Gurutzea omen zuen irudirik kuttunena, eta nonahi ikusten zuela ere, belaunikatu eta errezoan hasten omen zen. Bere egoitza berriari ere «Santa Krutz» paratu omen zion izena. Hautzarroan **Leitzako «Santakrutz»** ermitak bihotza zimurtzian hartua ziolako ez ote zuen izanen gurutzeari buruzko fede hori? Gutxi fia.



“Vicente Huarte, Obispo izendatu zutenean”.

Honela dio, hasieran aipatu dugun liburuskak, «**Los últimos días del Monseñor Huarte**» izeneko atalean:

*“¿Quien iba a pensar que los achaques de que dió muestras en este verano la salud de S.E. **Mons. Huarte** habían de terminar en el rápido y fatal fin de su vida?”*

*Eguraldi nahasia eta gorabehera haundikoak egin omen zituen uda hartan Wuhun, eta, horrez gainera, gaitz batek jo zuen Vicente:*

*“A causa de una enfermedad maligna con síntomas, tal vez, del terrible **spru** que dejaba en su organismo huellas crónicas”.*

Hori zela medio mantenu zorrotza omen zeraman, batez ere, edari hotzak eta holakoak probatu ere egin gabe; sekulako hotzikara ematen baitzioten:

*“Uno de los últimos días de Julio a cierto estudiante dió el siguiente encargo: «Diga al P. N. que yo moriré pronto y que él es, como ya lo sabe, quien me tiene que asistir en los últimos momentos”.*

Handik hil arteko egunetan, era bateko eta besteko botikak hartuarren, gero eta okerragora joko zuen haren osasunak. Eta bere gaitzaldia zela eta, lagun askorengandik jasoko zituen kartak:

*“A la vista tenemos, telegrama y carta de **Mons. Haouiseé**, telegrama de **Mons. Ochoa**, carta de **Mons. Tsou**, y finalmente cartas de **Pengpou**, **Suchowfu** (...) y no debemos pasar en silencio la afectuosa carta de **Mons Lecroirt**.”*

**Mons. Haouiseé**-ren kartak honela omen dio pasarte batean:

*“He de añadir que este dolor me ha sido personalmente muy sensible. Porque yo pierdo en **Monseñor Huarte** no solamente un vecino, sino un hermano muy íntimo en el Episcopado con quien me sentía feliz de mantener conversación.”*

Baina haren gaitzak kupida gabe segitzen zuen bere bidean, mediku eta lagunak etsia hartzerainokoa:

*“A principio del mes de agosto nueva indisposición. (...) La enorme vanidad de bilis que había arrojado demostraba un mal persistente, tal vez en el hígado: el mismo mal que hace dos años le puso en grave peligro. Llamaron al enfermero **P. Santiago Otaegui**. (...) Por desgracia el arte médico había agotado sus últimos recursos, y era aquel el supremo esfuerzo del organismo que quedaba extenuado de la lucha.”*



Atzenerako burua nahasi eta bihotza hutsegiten hasi zitzaion arte:

*“Al fin la respiración era más entrecortada, menos perceptible. Una pausa más larga, otra y otra; y voló el alma al Señor su Criador, dejando el cuerpo apacible, atrayente sin ninguna violencia. ¡Hermosa muerte la del Justo! «Así ya se puede morir» exclamaban los misioneros asistentes. Eran las 5 de la tarde, viernes, 23 de agosto (1935)”.*



Aita Vicente Huarteri txineraz egindako eskela.

Eguna ez da oso ongi ikusten, baina, oso oker ez banaiz, 1965eko Urriaren 15ean «**Diario de Navarra**» periodikoak honako artikulua hauxe zekarren: «*Navarros en una sola misión aniquilada de China*», orduan Wuhuko Obispo zen **Mons. Aranburuk** idatzia. Honela dio sarreran bertako pasarteak:

*“El primero a quien he de nombrar es el Exmo.*

*Era natural de **Leiza**. Fué consagrado Obispo de la Iglesia de Huhu por el **Mons. París**, el casi octogenario Obispo de Shanghai. (...) **Monseñor Huarte** gobernó durante 12 años, y visitó su extensa Diócesis de Norte a Sur lo mismo en barca por los canales y afluentes del **Río Azul** que en mula por las sendas de la montaña.”*

Beste hiru anai jesuita bazituen Vicentek. Hala dio behintzat, 1966ko Irailaren 29an **J. S. Uveor** delako batek «**El Pensamiento Navarro**» periodikoan idazten zuen «*De **LEIZA** a TENERIFE*» izeneko artikulua batek:

*“En San Cruz de Tenerife ha fallecido un gran jesuita navarro, el R. P. **José Eusebio Huarte San Martín**. Había nacido en **Leiza**, el 8 de septiembre de 1880, de una familia cristianísima, de la que surgieron tres hijos jesuitas y dos hijas religiosas.*

*El primero de los hermanos jesuitas fué un célebre profesor y escritor de Teología, el R. P. **Gabriel Huarte**, que enseñó largos años en la Universidad Gregoriana de **Roma**.*

*El segundo, es conocido como el primer Obispo misionero de Hulu (China), **Monseñor Vicente Huarte**.*

*El de más larga vida sería el menor, que acaba de fallecer con 86 años este 15 de septiembre de 1966, **José Eusebio**, ya que su hermano Gabriel murió a la edad de 76 años en la madrugada del 30 de agosto de 1946 y su hermano Obispo misionero a la edad de 58 años el 23 de agosto de 1935”.*

Baina, baziren senide gehiago ere. Goian azaldu dugun bertso sailean, begira zer dion laugarrenak. Roman zen laugarren misiolari hori:

*Oiek **lau anai** mixiolariak  
Jesusen lagundikoak  
Txinan ibilli ziran ezkerro  
Bat eraman Jangoikoak;  
Beste **bi arreba** moja sartuak,  
Jakinduri aundikoak;  
**Beste anai bat abogadua**:  
Lan asko egindakoak;  
Ez dira nola naikoak!*

Hor, zazpi senide sartzen dira, baina, elizako paperetan hamaika senide ageri dira denera. Harrigarria da zeinen izen zerrenda luzea paratzen zioten haur bakoitzari, batez ere hasieran. Azkenaldera ordea, hainbeste haur izatean, izenik gabe geldituko ziren bildurrez edo, eskerrak bi izen besterik ez zioten paratzen.

senide guziak, zaharrenaz aurrera, bakoitza jaio zeneko eguna eta guzi:

- 1865eko Azaroaren 4ean Jose Lorenzo Candido
- 1866ko Abuztuaren 17an Manuela Paula Juliana
- 1868ko Maitzaren 24ean M<sup>a</sup> Carmen, Josefa, Sebastiana, Juana, Francisca
- 1870eko Martxoaren 17an **Jose Tomas Gabriel (jesuita)**
- 1871ko Azaroaren 23an Josefa Felicitas
- 1873ko Azaroaren 8an **Roman (jesuita)**
- 1875eko Buruilaren 3an Serafina Candida
- 1877ko Apirilaren 9an **Jose Vicente (Obispoa)**
- 1878ko Urriaren 11an **Jose Luis (abogadua)**
- 1880ko Buruilaren 8an **Luis Eusebio (jesuita)**
- 1882ko Maitzaren 5ean Juan Pio

Bigarren alaba, mariposak euskaraz baino izen gehiago dituen hori, **Jose Eizagirre**, orduko exkurrabekin ezkonduko zen. Goizueta eta Leitzako juzkadu lanak berak egiten omen zituen, eta zaldi zuri baten gainean joaten omen zen Goizutara. **Martin Antonio «Zortziko»** zenak bere alabarik zaharrenari, Karmeneri, exkurrabekin ezkontzeko egin omen zion orain «**Pakon etxea**» deitzen diogun hori. Horrexegatik omen du bere benazko izena «**Karmenenea**»: Karmeneri egina delako. Senar-emazte honen semea zen gero Gipuzkoako Diputazioko Presidente izanen zena: **Jose Eizagirre Huarte**.

Baina, senidetan zazpigarrenak, **Jose Luis** abogaduak hartuko zuen aita **Martin Antonioren**



*Monseñor Huarte en la colocación de la primera piedra del Colegio de San Luis (Wuhu).*

oinordekotza **Zortzikonen**. Horregatik deitzen zioten honi ere **Zortziko**. Aldazko etxerik aberatseneko alabarekin, **Goldaratzeneko Maria Angela Juanmartiñenarekin** ezkondu, eta zazpi seme alaba izan zituzten: aurreneko **Maria Jesus**, gero **Pako Hernadorena** zenaren emaztea izanen zena; bigarrena **Jose Maria**, lanean Legazpin eta Eskorioatzen barrena ibili ondoren, andrearen aldeko **Nazabaltarrekin** batera lantegia sortu Bitorin, eta han bizi izandu zen hil artean; hirugarrena **Gabriel**, gaur oraindik Bilbon bizi den abogadua, **J. A. Agirrerren** gobernuko idazkari izandua; laugarrena **Rafael**, urte askoz Leitzako albaiteko izana; boskarrena **Karmen**, moja **Lurdesen** dagoena; seigarrena **Javier**, Sarrioko langile zela Leitzan hila, eta gaztena **Maria Isabel**, gaurregun **Bogotan** moja dagoena.



*Ezetz asma denen izenak. Nik esanen dizkizut batzuk: Goian zutik, ezkerretik hirugarrena: José Luis Zortziko. Ezkerreko neska: Maria Jesus, gero Pakok in ezkonduko zena. Kapela eskuan daukan Obispoa: Vicente Huarte. Eskuinetik hirugarren txutik ageri den mutikoa: Rafael zena albaitekoa. Eta ezkerretik hirugarrena: Gabriel abogadua, Bizkaiko Mendexan bizi dena.*

Lehen esan bezala, aberastasun gaitzak egongo ziren Zortzikonen garai hartan. 1924 urte inguruan **Aldazko Juanmartiñenatarrekin** batera barkuren bat hartu izan behar zuen **Jose Luis Zortzikok** Ameriketarako eraman-ekarriak egiteko. Baina, ondasun guziak enbargatu eta kiebra jota gelditu omen ziren gauetik goizera gure **Zortzikotar** sonatuak. **Aldazko Juanmartiñenatar**ak diruz sendoago ibilkio, eta haiek eutsi omen omen zioten beren bideari.

**Jose Luis Zortzikok** berriz, nahiz diru asko izan, halako zulorik estaltzeko haina ez izakio, eta hantxe desegin omen zituen bere dirupila guziak.

Gai honi buruz, **Aldazko Errandoneko Bixente Garrok** hala esan dit: *"Sozioak: **Leitzako Zortziko, Lekunberriko Zapatenekoa, Aldazko Joan Jose Juanmartiñena** eta horik zien; ez dakit gehiago bazen. **Bilbauko «Xota»** esaten zioten aberats batekin egin omen zuten tratua, eta Juan Jose Juanmartiñena horrek joanda paperak firmatu segitun; eta barkuko kapitana etorri omen zitzaion handik egun batzutura: barku hura ez zegoela kondiziotan! Hartatik pleitun hasita galdu omen ziren. Akordatzen naiz, **Goldaratzeneko** gauza guzik **Mittonera** eramaten nola ibili ziren enbargokoan.*

*Horik aberats izugarrik ziren. Aldazko etxe asko berenak ziren, Gure etxe hau ere horiena zen. Benbora baten **Kondea** egoten omen zen hemen. **Larraun** aldeko etxe askok ageri omen du horien eskudoa, horiek erosi zituztenean paretan jarria. Aldazko eliza, klausurako mojen komentua, eskola, herriko urek, karretera, denak Juanmartiñenatar horiek eginak dira. Gu mutikoxkorrak ginela, Amerikano batzuk etortzen ziren Goldatzenera, eta igandetan balkoitik **zortzikoak** botatzen zizkiguten herriko umeei".*

Bihur gaitezen Leitzako Zortzikogana. Barkuak egin zion zuloa berdintzeko gauza ez zela ikusi zuenean: gelditzen zitzazkion ondasunak izenez aldatu, eta urte askoan berekin lanean ari zen **Miel Joakin Etxarri Barberena** berutarraren izenean para zituen. Gizon hau, **Berutako Atxoaneko** semea zen, mutikotan **Zortzikonera** morroi etorri, eta geroztik bertan gelditua. Soldaduska ere Zortzikonetik egin zuen: hiru urte Afrikan; eta gero ezkondu ere bertan, **Soroko Filomena Caballerorekin**. **Domingonen** bizi izandu omen ziren. Honen semea zen, gero **Pakon Etxen** morroi egonen zen **Joxemari Etxarri**; eta alaba berriz, **Lontxa Etxarri**, **Luisito Iturrarte** zenaren alarguna, oraindik lehen **Zortzikone** zegoan leku berberean bizi dena.

Gero, 1935 urte inguruan bere familia hartuta Bilbo ondoko **Begoñara** jo omen zuen José Luis **Zortzikok**. Lehengo gaitzak aski ez, handik urte betera **gerra zibila**. Eta **nazionalista porrokatuk** izakio zortzikotarrak! Hiru anai egondu ziren kartzelan: **Joxemari, Rafael** eta **Gabriel**. Eta beste seme alabekin, gurasoak **Frantzira** eginen zuten ospa. Donibane Garaziko eliz etxean jarriko ziren. Seme Javier morroi sartu omen zen bordan batean. Frantzitik etorrita, **Goizutako Angel Loyarte** etxen egondu ziren bolada batean **Maria Pilar Albaren** bidez, Bilbon eta Frantzian ere elkarrekin egonduak baitziren. Besten etxen ezin ba bizi, eta handik hurrena Aldatzera, Jaunmartiñenatarren etxera joko

zuten. Han ere, ez omen zituzten oso gogo onez hartu, eta Donostira joanen ziren handik. Donostin bizi zirela, dirua beharko zuen, eta Lasarteneko alorra ordun saldu zuen Aliñekoen bitartez. Eta handik azkenean berriz ere Leitzera.

Leitzan «**Karmenenen**» jarriko zen bizitzen **Jose Luis Zortziko** bere famili guziarekin. Orduan ezkonduko zen **Maria Jesus**, Zortzikon alaba **Pako Hernandorena** eratsundarrarekin. Zortzikotarren familia larri samar zebilen, baina, **Pako** baso lanetan fuerte zebilen, eta haren babesean aterako ziren larrialdi hartatik.



«Zortziko» Frantzian exilioan zegoenekoa.

Garai hartan, «**Karmenene**» etxearen jabe zena Madriden bizi zen, **Jose Eizagirre** exkurrabekin ezkonduko **M<sup>a</sup> Carmen** alegia, eta bere anaia **Jose Luis Zortzikori** 1943.eko Apirilaren 26an Madrildik idazten dion karta batean esaten dio: *"Leitzako udalean haren izenean dauden ondasun guziak eta **Karmenenea** ere berari uzten dizkiola, eta paratzeko lehenbailen bere izenean".*

Karta hau idatzi eta lau urteren burura hilen zen **M<sup>a</sup> Carmen**, 1947ko Garagarriaren 9an. Honela dio haren eskelak: *"Doña María del Carmen Huarte San Matín, Vda. de **Eizaguirre**, descansó en paz en el Señor en **Madrid**, el día 9 de Junio de 1947 a los 79 años de edad".* Honetan bukatzen da «**Karmenenea**» etxe izenaren sorburu izan zenaren bizitza.

Baina, haren senitartekoak **Karmenenean** segituko zuten bizitzen. **Jose Luisen** seme alabak, nor bere bizipidea bilatu ahalean sakabanatzen joan baziren ere. Hona, **Aliñea Goiko Iñaxi** eta **Joakinatxo Astibiatar** ahizpek esandakoak:

"Gerrondoren: **Rafael** ta **Javier Erreterire**

yoan zien **Bagüesenera**, parientek baitzittuen; **Rafaelek** andik bukatu zun karrera. **Joxemari** berriz, gure izeba **Katalinan** etxera **Eskoriatzara**; gore ango **Iturbe** fabrikean sartu zen; **Elia Nazabalekin** ezkondu eta gero Iturbe fabrikeko sozio batzukin, **Olazabalekin** da, fundizioa yarri zuen Bitorin, ta oso ongi yoan zetzioan, diru asko in zuen. **Gabrielek**, etxetik egin zun karrera, eta **Bilbaura** yoan zen, an gerraurretik ezautzen baitzun andregai, **Mari Carmen Aramendia**, ta aren bidez billatu zun lana; ta gero ezkondu **"Vidrieras de Llodio"** fabrikera yoan zen jerente; ta erretiratu zenetik **Mendexan** bizi de; andrea oraiñ bi urte ille do. Eta beste bi aizpek, berriz, moja yoan zien: **Carmen**, oaiñ Lurdesen dagoana, ta **Maria Isabel**, generala egin zena, eta orain **Bogotan** dagoana".

Azkenean attuna **Zortziko**, amuna Maria Angela, bere alaba **Maria Jesus** eta suia **Pako** bakarrik geldituko ziren **Karmenenean**, urterik urte jaiotzen joanen diren iloba gazteekin. 1953eko **Santiburtzio** goizean zezenak bukatu ondoren, **Gaztelu** zena sarrerako ataka haundia irikitzen ari zela, tartean harrapatu, eta hartaxetik hilen zen **Jose Luis Huarte**, handik berrogei egunen barrenera. Hona zer dion haren eskelak, nazionalista amorratu bati dagokion euskara zaharrean:

"Huarte ta San Martin´dar Jose Luis, 74 urtekoa, Elizakoak eta Aita Santuren onespina artuta, **Leitzan** 1953´garren urteko Agorrilaren **20**ean, Jaunak bizitza obero aldatu zuan. - G. B. - . Aren emazte naigabetu: **Juanmartiñenana**´tar **Maria Anjela**; seme-alabak: **Maria Jesus**, **Jose Maria**,


**Gabriel**, **Rafael**, **Sor Inmaculada** eta **Sor Maria Begoña** (**Frantziskotarren** lekaimeak) eta **Frantzisko Javier**; sui eta errañak, **Hernandorenatar Frantzisko**, **Nazabaldar Eulalia**, **Garamenditar Miren Karmele** eta **Azpiroztar Miren**; anaia, **A. Eusebio Huarte S. J.**; ezkon -senideak, **illobak**, **billobak** eta **gañerako aideak**, beraren gogo-alde otoi-eske datozkizu".

Amona **Maria Angela Juanmartiñena** berriz hiru urteren burura hilen zen 1956eko Garagarriaren 15ean.


Haretxekin bukatu ziren urte luzetan zer esana ugari eman zuten Leitzako **zortzikotarren** izanak. Baina, izenak gerora ere segitu zuen. Esate bateko, Iruñeko Berriozar auzoan bere koinado **Joseleon Tabernak** paratu zuen merkatuak «**La Venta de Zortziko**» zuen izena. Zergatik? **Jose Luis Zortzikok** diru puska haundia eman ziolako. Leitzan bertan, Santakruzko ermitatik beheraxeago, hantxo dago «**Zortzikon Borda**». Zergatik deitzen zaion «**Zortzikon Borda**»? Jakina ba: bere garaian **Jose Luis Zortzikorena** zelako!

Izenak izen, Zortzikotarren izanak eta ondasunak ordea, asko behinpein **Joxemari Lizarraga Amerikanoak** bereganatuko zituen. Besteak beste: Zortzikonea, Goiko Errota eta beste lur asko. Hurrengo jauntxoa **Josemari Amerikanoa** izanen zen Leitzan. Baina, haren kontuak beste idazlan luze bat eskatzen du, Obispo Huarteren hau bezalaxe, bere bertsosail eta guzi.

HEREJE BATEK



Zortzikonea, kamio aldeko eskuin saihetsetik begiratua.



Zortzikon etxea, atzeko aldetik begiratua.

**Eskerrak:** Lan hau burutzen lagundu didaten guziet nere eskerrik bihotzekoenak eman nahi dizkiet, eta batipat: **Maritxu Azpiroz**, Rafael albaitero zenaren alargunari. **Aliñea Goiko Iñaxi** eta **Joakinatxo Astibia** ahizpei. Pakon **Josemari Hernandorena** eta bere emazte **Milagros Eruitiri**, Udaleko artxiboetan lagundu didaten **José Luis Azpirozi** eta **Lurdes Labayeni**, eta nola ez, elizako artxiboak hamaika bider nere esku para dizkidaten **Juan Bautista** abadeari eta **Plazido** artzai teologari.

## INSUMISIOA ETA OBJEZIOA

Zeñek ezto itzeiñ gai honetaz noiz bait? Nork ez du objetore edo insumiso bat ezagutzen? Ba... guk geok ontaz aittuko ga informazio pixkoat emateko asmoz. Ez da izanen guk nahi giñun bezañ zeatza beño tira aurrerago ere zeozer iñeñ du.

Zer da antimilitarismoa? Itzek dion bezela militarismoen kontra doan moinmentue, onek bakoitzen askatasune zapaldu itten dulako: sexismoa jerarkie, xenofobie (arrazismoa), gerrak, indarkerie eta abar bulkatuz ta inddartuz. Dena dela hau da teoriak diona, eta argi dao (emen benik) beste arrazobe batzuk ere izan dittezkela soldaduske eta militarren kontra eotteko. Nork berak jakinñen do. Konttuok utzi ta jarrai zaun:

### OBJEZIOA

Bi modu ezberdin daude objetore itteko: -Normala-. Hau ittea errega da oso; zure erligio sinesmen, eo ideologiatik ez dozo armaik artu nahi ta orrexeatik uko itten diozo soldaduskei. Orrek ez du esan nahi militarren kontra zaudenik eta ondorioz suposatzen da ordezko erbitzua (prestación social sustitutoria) itteko prest zaudela. Objetatzeko inpresoa bete ondoren kontzientzi eragozpen kontsellu nazionalera bidaltzen da ta illabete batzuk berandugo erantzuna jasotzen da: onartu zattuena ala ez. Normalen arazorik ez dao onartue izateko beño gero ordezko zerbitzua ittea joateko deitzen dizue.

"Declaración colectiva" izenekoa: hau da oan diño erabili dena militarre jakiñazitzeko etziñula soldaduska joan behar ta bide nabarren militarismoa gogor salatzeke ta kritikatzeko. Deklarazio orretan argi jartzen do objetore zala ta ez dozola ez soldaduzkaik ez PSSik iñen zibila zalako ta militarismoen kontra zaudelako. Iñ beste objezio bezala itten da beño guzi oi argi utzite. Oaiñ ia, gutxi itten da eztuelako onartzen ta ordun etzattuelako objetoretzat artzen. Ola ez da deus lortzen gaur egun da orreatik oaiñ jendea insumisioa itten da.

### INSUMISIOA

Bi insumiso klase dao: soldaduskari uko itten diona besteik gabe da ordezko zerbitzuri itten diona (azken ok objetore onartuk izaten die). Soldaduskai ezezkoa ematteko zuzen zuzenen ez au deus berezik egin beharrik: joateko ainddue eta paperak iritsi arte laeei orren bizi da ainddu oi jasotzekoan paper guzik

"centro provincial de reclutamiento"ra biali eta kitto. Besteik ezto orrek. Paperak ok die: Kartille destinora joateko txekea da soldaduzka ez dozola joateko asmoik jartzen dun deklarazioa. Paperak fotokopiatu eiñ-beaittozo da konpultsatu originalak bidali ta fotokopiak zuk gorde. Ta gero auskalo! PSSri ezezkoa ematteko gauzbera itten da: paperak PSSko bulegora bializ beño kartzela zigorrak gorrangoak izan dittezke. Dena dela soldaduskana argi dau biño, zergatik ez ordezko zerbitzue?

Zeatik muziñ iñ objezio legari? Garbi asko dago oi eztela objetorek laun tzeke edo babesteko asmatutako legea, baizik eta ok ixillazitzeko da zigortzeko. Oi dela ta ez tu olako legerik onartzen, gaiñea oaiñ ez dute onartzen geingo aipatzen ttun arrazobek objetatzeko (Declaración colectiva delakoa aleie). Gaña soldaduske betetzen ai zala ez dezakezo objetatu. Konstituzioko 16.2 artikulua esaten duna ere ukatu itten do objetore eskaera ugari atzea botaz (Lege onek dionez nor berak nahi duna sinistu dezake, pentsa dezake ta nahi duen erligioa izan dezake ta iñorrei ez dio esprikazioik edo azalpenik eman behar). Ortaz aparte hamairu illabeteko iraupena do (soldadusken berriz beatzi) eta soldaduskeko baldintze edo kondizio berdintsu ditto ordutegie soldata. Lanen aittu beher musu truk ainbeste gazte paroam don bittarten seguridade sozilaik gabe ta deuse gabe, au bizimodue alajaiña ¡!

### ZENBAT INSUMISO DAUDE EMEM? ZENBAT OBJETORE?

Oaiñ diño naparroa izan du de insumiso-objetore geien zun errialdea biño, egun gipuzkoa omen da; arri-garrie ezta!. Naparroan bosteun bat objetore omen die ta insumiso berriz 300en bat. Aurten beste 30en bat iñ omen die. Gartzelan momentu onetantxe dauenak hiru die: bi iruñeko kartzelen ta beztea (Patxi Leone) mardriden alcala Meco kartzelan.

Aztu ez dezakeuna zea da, gero ta gorrigo jartzen ari diela ta insumisok gorrik ikusi bea ttuela beño beste alde eutsi behar diula iñ dakoai. Juizioak ugaritzen ai die, majiñatt gazte kartzelan eondu de biño ala ere eztu etsik artu behar. Geientsunak denbora gutxi izandu die barrenen (illabete pare bat). Militarren eta juezah arten kontradizio franko dao.

Leitzen bertan bai ote dao olako alprojaik? Guk dakiunez 10bat objetor eta 3 insumiso. Jakin dezagun bere iritzia:

### JOXEMARI FAGOAGA Alias "Mamaki"


"1989.urten objetatu nuen. Uaiñ objetorea naiz beño PSS ittera joateko deituko ditea seguraski. Oi gertatu ezkerre insumiso iñen naiz, ordezkorik itteko eztot iñungo asmorik. Nik au iñ nun ez dotelako zorrik

ez gizartekin ez ejerzitoarekin. NI, NI naiz eta kitto, ez naute behartuko. Ezta pensatu ere.

**PABLO AROZENA** Alias "Pablito"


"Nik objezio normala iñ nun 1990eko Maiatzen eta ondorioz objetorea naiz. PSSren zain nago beño uandikan ez dakit zer egin". "Nik uste dot ez dela joan bear".

**JUAN MARI BARRIOLA** Alias "Txoma"



Ni insumisoa naiz gobernuari "porkulo" ematteko. Etxebekin batera egin nuen eta bere ego ran nago gutxigorabera".

**MIGEL MARI ELOSEGI** Alias "Luze"



"Objetorea naiz eta prorroga bat eskatu nun (servicio social sustitutorio) delakoa egiteko. Oraindik zai nago. Duela urte tèrdi egin nuen objetore. Sei illabete pasata alletu zitzaidan onartu nindutela zion paper ofiziala. Ondoren, prorroga bat eskatu nun "sevi zio" famatu hori betetzeko.

"Estudiatzen ari naiz eta normalen, datorre urten bukatuko det karrera. Aurten adibidez tokatu balitzait prestazio sustitutorioa

betetzera, erditik moztuko lidake ikasketa eta ez nuke hori nai".

Karrera bukatu eta noizbait, prestazio hori betetzera deituko naute. Prestazioak urte bete irauten du eta soldaduskak 9 hilabete. Hor hasten da koxka. Gañera, es nago adoz serbizio horrekin. Ni objetore egin nintzen militarrekin ez nuelako ezer jakin nahi. Urte bete galtzera militarrei begira tristea da oso. Eta prestazioa berriz gaizki antolatutako sistema da, jartxe bat jartzea bezela. Guri tokatzen ez zaigun la


batekin topatzen gera eta gainara ez du peztaik kobratzen, hori illea hartzea da".

"Edozein aukera ere tistea da. Militarrekin ez det ezer ikusi nahi. Bestea, luzea da; denbora galtzea eta gañera lan hori beste batek egin behar zun kobratuz".

"Arazoa legea da. Insumisoei zer gertatzen zaien badakigu, beño hori da kontra dagoen postura bakarra. Aukera oien kontra dagoena insumiso itten da eta onek izorratzen du sistema".

Oraingoz, arazorik gabe nago proroga batekin, beño lanera bidaliz gero ikusiko nuen zer egin, bakoitzaren erabakia da hori..."

**MIKEL ETXEBERRIA** Alias "Remin"




"Insumiso egin nintzen 1991ko Ekainaren Iruneko kakitzateko egoitzetan".

"Zenzugabeko eta injustizia bat iruditzen zait soldaduska egitea eta are gehiago beharturik joan behar izatea".

"Ni ere egoera larrian nago, juzgatu militarretik pasa ondoren rollo guztia epaiketara pasatzen ari zizkigute insumiso guztiei, baña oraindik epaiketaturik ez digute aittatu.

Kartzela tokatu ezkerro joan beharko".

**JOXE M<sup>a</sup> HERNANDORENA** Alias "Beltza"




"Estudioak bukatu ni-tuenean objetatzea erbaki nuen. Erabaki hau hartzeko arrazoiak oso errazak eta xinpleak dira: ez zaidalako potrotran jartzen soldaduska egitea... balio gabeko zerbitzua iduritzen zaidalako; horrez gain iñork ezin dezake tipo bat egin nahi ez duenzerbitzu batera behartu. Sistema hau behetik aldatu beharko litzatekeen sistema zaharkitua da".

"Orain, PSS-a egite-  
ra joateko dei baten espe-  
roan nago. Dei honen ondoren ez dakit zer egingo du-  
dan, biana hau ez betetzeko, nare ezkuetan dagoen  
guztia emango dudala argi daukat behintzat".

"PSS-a, gu guztiontzat, zigor bat izateaz gain,  
ezkulan merke bat lortzeko era bat da. Nik ez dut nere  
bizitzako urte bat estatuari eman beharrik".

**FRANCISCO ORTIZ** Alias "Kiko"




"Ni 1991 urteko Ekainean egin nintzen insumiso".

"Zergatik?, ba... norbera libre delako bizitzaren aurrean erabakiak artzeko ta inposaketaren aurka nagoelako".

"Egoera larrian nago, oraindik ez didate juzgatu baña bidean dago. Ez dakit zer egingo dudan. Orain biñipin, itxoin.

**JOXAN PERURENA** Alias "Carretto"



"Orain dela 6 urte objetatu nuen soldaduska ez egiteagatik. Orain anmistiatuanago".

"Ejertzito modernoan aurka nago. Nortasunik gabeko gorputzak dia hauek: soldaduak ez bait du bere sorlekua zaintzen, basterrak izorratu baizik".

"Ez naiz pazifista. Indarkeria erabili behar bada erabili dadilla, beste erremediorik ez baldin bada; aukera hau be ti hor dago, ezin da ukatu. Gonbenigarria

dela, ez dela? Erasoa nolakoa den alakoa erantzuna".

"Gaur egungo egoera insumisiori buruz aleia Ba... larria eta aldi berean interesgarria. Argi dago, guk gazteak urratu beharko ditugula aspalditik bizkarrean damazkigun legearen zamak ta hau lortzeko sufritu egin behar dugula".

"Soldaduskara zertara jon, horretako ahalmenik eta borondaterik ez izanezkero".

"Hau aipatzen dugunean zera esaten dute: gizarte honetan ejertzitoa bearrezkoa dela. Zeñen eta ze interesak defendatzeko? Nik ez dut edozer gauzagatik borroka egiten eta oraindikan gutxiago niri izorratzen ari diren lau kabron defendatzeko".

"Ez du iñongo zentzurik gure zapaltzailearen interesak defendatzeak, gure buruaren aurka jokatezak, aleia. Zertako mantendu ainbeste soldadu, kapitan, alproja, azken fiñean, ainbeste putaseme".

"Galdetu nere attari gustora joan zen soldaduskara eta ondoren gerrara Frankistekin. Ta hori gitxi balitz: gerra pukatu ondoren atta baserrira joanzenean, han zittun pixarra guzik kendu eta aldein zuten frankistek. Ara, ze manera eskerrak emattekoea marikon oiena".


"Militarreen karakterra zapaltzailea da.

Kontzintzia berriz itxia ta axolkabea, apeitzak eta fraileak bezelatsu ez hainbeste biño, igualtsu".

"Egoera honen aurrean zer egin da?: ixildu ta burua makurtu. Alletu zaigu burua altxatzeko garaia eta arazo hau konpontzeko ordua".

Txikitu dezagun milla puskatan gizonak zapaltzeko ainbat mendetan erabili duen sistema hau,(ejertzitoa aleia!) bonba bat bakarrik ere erabili gabe. Hau nahi baldin ba dezu egin zaitez insumiso!!!...

**FERNANDO OIARZUN** Alias "Perrillo"



1987 urten uda alden objetatu nian nik tti kitatik erabaki nuelako. Arrazobe asko zeok oi itteko. Konpazio batera, errepre-sioa zapalkuntza, menpekotasuna, gerra, imperialismoa, jerarkia, injustizia, indarren legea. Oi da ejertzitoak itten duna, soldadusken olako gauzek ikusten dittot o ez!" "Bestela ze demonio iñ bear diu gaztek, indiona betil".

"Oaiñ annistiatue neok beño alare zerbatte itteko aukera izanezkero, eurre!".

**JUANITO BARRIOLA** Alias "Elordi"

"Nik objetatu nuen legea atera baño lehen Iruñeko MOCeko egoitzetan 1986ean".

"Amnistiata nago".

"Objetatu nuen batez ere, era guztietako ejertzitoren aurka sentitu naizelako beti eta horretaz gain, erabaki hori norberak hartu behar lukeelako".

"PSS betetzea deituko balidate ez nintzateke joango inolaz ere, zigor gisako prestazioa iruditzen zait. Lanpostuak okupatu bezterik ez du egiten, gainera asratik gogoan neukan gartzelaren mamua, baina ala ere aurrea".

Eta, hau izandu da dena oraingo. Barkatu diezaiula bakarren batek bere izena eztaola ikusten bado, iñaldu ga.

Iraila alden Leitzen bulegotxo edo antzeko zerbait jartzeko asmotan gaude, beño bittartean norbaittek informazio zehatzagoa nahi ezkeru Iruñea joan ditteke.

- Insumisioa egin nahi duentzat:

Egunak: Astearte, Osteguna eta Larunbata goizetan.

Lekua: Meson tabernan.

Ordua: 8etan.

- Insumisioen gurasoen elkarteak:

Ostiraletan 7,30ean.

Nafarrerria kalea 15-1ª pisua.

## TXIRRINDULARITZA LEITZAN

Leitzen txirrindularitzaren hasieraz zerbait esatekotan, herriko pestetan lasterketak antolatzen ziren garaira jo beharko genuke. Jose Ramon Gaztañaga, Migel Peritzekoa, Eusebio Kanflanka eta konpetizio maila altuxeagoan, Frantzian lasterketa profesionalen parte hartzera ere iritsi bait zen, Migel Lizarraga izaten ziren orduan herriko txirrindulariak.

Geroztik dauzkagun datuek 1970-1971 urteetara garamatzate. Garai hartan herriko mutiko talde bat izan zen txirrindularitzari segida eman ziona: Luis V. Otin, Jesus Zabaleta, Karlos Sagastibeltza, Jose M. Oiarzun, Pako Astiz eta Tomas Zabaleta, besteak beste. Beraiek lasterketak antolatu eta bertan parte hartzen zuten bitartean, Fermin Erbitik, Karlos Erbitik edo beste lagunen batek epailearena egin, denbora neurtu edo klasifikazioak erabakitzen zituen (etapa, orokorra, erlojuaren kontra, taldeka...).

**ARRERA KIROL ELKARTEAK** lagundu zion mutiko talde honi hasieran. Aipamen berezia merezi du hemen Jesus Bildarrazek (Ezpol) bere debaldeko laguntzagatik, gure eskerrik beroenak berarentzat. Geroago Sarrio izan zuten laguntzaile. Hala sortu zen Aurrera-Sarrio txirrindulari taldea, hau gaztetxo eta zaletu taldeetan barratuta 25 txirrindulari iritsi zena.

Talde hauen lorpenik aipagarrien artean: 1975-ean, Marbellan, Espainiako Herrialdekako B kategoriako gaztetxo txapelketan brontzezko domina, erlojuaren kontrako prueban (Nafarroako 4 ordezkarietatik hiru Leitzeko taldekoak ziren: Otin, Sagastibeltza eta Kanarias), Bizkaiko Biran Zabaletak lortutako lider mallota, Otinek irabazitako zenbait karrera azken honetako profesionalen Valles Mineros delakoa irabazi eta bai Tourrean, bai Espainiako Bueltan ere parte hartu zuen gero, eta aipatzea lu zeegia izanen litzatekeen beste hainbat lorpen.

Txomin Perurenak irabazi zuen Espainiako Mendi txapelketa, Usategietan bukatu zena, Pazkotako birako irteerak eta Otinen omenaldiko Karrera ere antolatu ziren orduan.

Sarrioko krisi aldi ezagunaren ondoren, beeraka egin zuen taldeak eta aurrerago Guratz Mendi Elkartearen laguntzaz aurrerentzako txirrindulari eskolan sortu bazen ere, honek ez zuen aurrera egin.

Ondoren Jesus Zabaletaren bultzadaz Fernando Gartzia eta beste guraso batzuk, Egoki eta herriko zenbait merkatal etxeren laguntzari esker, Txirrindulari eskola berpiztu zen.

Gaur egun Leitzen txirrindularitza indartu asmoz, lagun talde bat elkartu (Zabaleta Gartzia, Otin, Sagastibeltza, Larraide, etab.) eta AIZAN txirrindulari elkarte sortu dugu. Txirrindulari eskola, zikloturismoa, lasterketak, mountain-bike probak, proba mistoak eta txirrindularitzarekin zer ekusia duten ekintzak gustatzea izanen da elkartearen zeregina.

Hasteko aurretan Nafarroako Birako etapa, Aizanen bukatu zena berreskuratu dugu eta izan duen arrakastak jendearen gan zaletasuna piztea espero dugu.

Leitzeko txirrindularitzaren nondik-norakoak labur kontatu ondoren eta oharkabean aipatu gabe utzitakoak barakatuko dituzuelakoan, Leitzar eta ingurukoengana jotzen dugu txirrindularitza sentitzen duten guztien laguntza eskatuz.

Horrela gazterieri beste kirol aukera bat eskeini geniezaioke eta kirol eder bezain gogor honen alde zenbait egiten saiatu, gazteak prestatuz eta laguntasuna gustatuz.

Bukatzeko Plazaola Aldizkariari eskerrak ematen dizkiogu Leitzarren gana iristeko eman digun aukeraren gatik.

Zuen esanetara gaituzue ezer komentatu nahi badiguzue.

**AIZAN TXIRRINDULARI ELKARTEA**





Leitzan, 18 eta 25 urte bitarte, 447 gazte daude.  
Horietatik, 232 neskek eta 215 mutilak

## ZE ETORKIZUN HELDU ZAIE?

Berez, oso herri gutxi dute horrelako gazte kopurua. Euskal Herriko populazioa izugarri azkar zehartzen ari da, eta Leitzan berriz, 3.181 biztanletik ia 500 biztanle "pil-pilean" daude. Zera da, beraien aurreneko lanen bila, ikasketak bukatzen edo lan munduan sartu berriak daudela esan nahi dut.



Gazte talde hau indarrez beterik gabe, esaten den bezala "mundua jateko prest" dago, baina...

### LEITZATIK ALDE EGIN GABE, BA AL DUTE ETORKIZUNIK?

Guk, herriko ordezkari bezala, izugarriko **desafioa** dugu gazte horiek lan bila kanpora joan beharrik ez dezaten. Gazte asko Sarriotik, Udaletxetik eta beste lantegietatik noizik behinka ateratzen diren lanpostuei begira dago. Erru bat dela uste dut. Ezin dira, edo hobeki esanda, ezin gara horrekin konformatu.

Etorkizun sendo bat bilatu behar dugu, zeren eta herria gaztedirik gabe herri hila da.

Une honetan herriko ordezkariok dugun **desafio**rik haundiena lantegiak, tailerrak, almazenak iriartzeko behar diren neurriak jartzea da. Aldi berean hauek lanpostuak sor ditzaten eta ahal bada lantegi haundien menpe egon gabe. Nerretzat Udalaren eskuetan dauden gaietatik lehentasuna daukana **Industri poligonoa edo Industrialdea** da. Eraiki behar da aii!. Zeren eta badira enpresak beste herrietara *joan egin direnak*, *alde egin behar izan dutenak*, eta berehala soluzionatzen ez bada, beste batzuk ere joan egingen direnak.

Kanpora joatea behartu ditugun hauetako batzuk, Leitzako jendea hartu dute lanerako. Hori kontutan hartzekoa eta benetan eskertzekoa da.

Momentu honetan, Nafarroako Gobernuak gaia hau baztertuta dauka. Alde batetik, aurtengo presu-**pu**estoetan Industrialdeak ez direlako sartzen, eta bestetik, Udaleko partaide batzuen politika ez delako oso errealista, nere ustez. Izugarriko proiektuak egin nahi dituzte. Esate baterako, Olaberitik Maimurrera joanen litzatekeen bariante bat (Mataderotik Labaienera erreka gainetik pasatuz).

Bariante honek dakarren kostoengatik ere administrazioak gaia hau baztertuta daukala uste dut. Honek oztopo besterik ez du sortzen. Ez dut uste horren beharrik dagoenik, zeren eta behin autobia iriartzekin, zirkulazioa (batez ere kamionak) hortik ibiliko dira.

Haundikeriak alde batera utzita, saia gaitzen Industrialderi irtenbide bat ematen, Gobernutik laguntzarik ez badugu ere, momentuan eta aspalditik esperoan daudenei eraikitzeko baimena eman ez, besterik ez bada.

Nahiz eta nere postura komodoa izan (lanpostu fijo bat edukitzeagatik), animatu nahi zaituztet zuen inizatibaz lanpostu berriak sortzeko.

Bestaldetik **etxebizitzaren arazoa** dugu. Gaur egun gazteek ez dute inolako posibilitaterik pisurik erosteko.

Une hauetan, hutsik dauden etxeen inpuestoak igotzea planteatzen ari da Udala. Honen helburua hutsik dauden pisuak alokatzera edo saltzera ateraztea da. Ez dut uste honekin arazoa konponduko denik. Gobernuaren laguntzarekin etxebizitza sozialak eraikitzea izanen litzateke konponbide bat, baina horretarako arau subsidiarioak aldatu beharko lirateke, zeren eta momentu hauetan dauden arauak jarraituz, ezin da etxerik eraiki.

Beno ba, gaia hauei burutan buelta pare bat ematea konbidatzen zaituztet, eta besterik gabe, pesta eder batzuk pasa ditzazuen opa dizuet.

**Azken ordukoa:** idatzi hau bukatu ondoren, esaten didate oraintxe bertan Nafar Gobernuak emanen ote duen diru bat Lekunberrin eta Leitzan Industrialdeekin hasteko. Oraindik ez dakigu zenbateko dirulaguntza izanen den, baina, ANIMO!

**PITULARI**

"Gaztedia eta Langabeziko"  
Udal Komisioko Arduraduna.



## PESTA BEZPERAKO EZKILLEK

Kinkan, kinkan, kinkan, kinkan, kinkan, kinkan pesten hasera nabari ezkillen soñutan txistu eta txaranga plaza eta kaleetan poz eta alaitasuna Leitze zahar honetan.

Labetxeko ekullun zezen adar okerrak umeak errausten buruhaundi bizkorak zeru aldetik, pim-pum!, suzuriaren txinpartak pestar lea erruz, nonnahi burruse beltzak.

Ezkillen torrea Kandido eta Joxe Mari bizkar eta eskuz ekin mallu ta sokari ezkillen mihiak dantzatzeko gogotik ari pesta onak eskatuz San Tiburtziori.

Asko eta asko ezkillen yotzeko erak soñuz adierazten meza eta bezperak baita ere askotan herriko gertaerak zuei erakutsi zizuen "Kantaro" zaharrak.

Ezkillen yotzalle aparta eta tripezayen bataio eta elizekoekin beretzat harakayen odolki, birike-ziztor, enpo urdaye holaxekoa zen Joxemiel sankristabe.


Pesta bezperan urtero hor izaten ditugu Oxemari Joseaundina eta Kandido ezkillen-torren lehenago sankristabek egiten zituen lanak egiten.

1992-ko maiatzak 23. Tolatxenean Kandidokin yolasean ari naiz:

-Noiz hasi zifetan ezkillen yotzen?

-Ni hasi ninyuen sankristabe hil ondoren, orain dela hemezortzi urte, korpus egun baten. Oxemari Joseaundina ta bik hasi giñozen. Ni Oxemiel sankristabekin aritzen ninyuen maza yotzen. Sankristabek soka bizkarretik patu eta bizkarrez yotzen zien ezkerreko mihie eta eskuz kontrakantoko maza. Bizkarrari eta eskuri baten eman eta banaka yotzen die. Ni la-guntzea yoaten nintzenen bi eskukin aritzen huen eta berak ezkerreko eskuz itten zuna nek itten neioan. Ongi ittea nahi izaten zien. Konpasa presaka edo mantsoegi hasi eta haserretu itten huen. Orduko ezkillen ongi patuk hittuen, lasa eta balantza itten zuela. Gero obra in zien eta estuegi yarri zetien eta ez dittok





muitzen eta soñue ez die behar bezala ateratzen. Orain Oxemiel sankristabe yotzen hasiko balitz haserretu eta yo ere ez letikek iñen, halaxe zeudek. Gor baitzeudek eta indar haundie eman behar zitziokoa eta gañea halare soñue ateratzen die sorragoa. Aritu giñozen yartzen baño ez giñetien ongi yarri. Gero beste gauze bat ere baiuen ordun, herrie hutse huen, ez huen pisurik, antamollik ere ez, tabernetako musikik ere ez, fabrikeko soñurik ere ez eta sankristabek soka bizkarretik yartzekoan mihie pixkoat muitzen bazien "kan" herri guzittik aditzen huen. Orain ez, eurre eman eta halare gutxi aditzen dok.

**OXEMIEL SANKRISTABE  
(JOSE MIGUEL GOGORZA ORKIN)**

Tripazai galanta zen sankristabe. Bataioak, elizekoak emattea, seizioak, eztaiek eta zerri-hiltzeak zirela hark beti "barrena, barrena", beti tripe betetzen. Alde guzietara saiatzzen zen: hilentzat kajak egin, kanposantuan zuloak egin eta hilek lurperatu, leihoetako kristalak betun puskabat emanez paratu... Gari-garbit-

zeco makina uzten zuen hiru almote gariren aldeako. Ziztor gaiek txikitzeo makinak ere bazituen etxez-etxe erabiltzen zituenak. Atsaldeko ederra eta odolrik harren aldeako. Zerra ere bazuen baina ez noski motor "trifasiko" dune. Ganbaran txirriki yarri eta sokatik zintzilik harri haundi bat botatzen zuen ekullureño zerra erabiltzeko. Gero akerrari eragiñez igotzen zuen harria.

Edozein lanetan arteosoa zen. Aieneko panaderie zaldi batek bueltaka erabiltzen zuen. Ezbeharrak sortzen dira eta zaldi horrek besoa moztu. Sankristabek zurezkoa egin zion eta ederki ibiltzen zen. Hark harrapatu balitu "teflona" eta holako gaiak!

Armarioak eta mahaiak egiten zituen eta umeak yostatzeo kolunpioak ere bai. Bazuen berak egindako zurezko San Miel Aingeruaren irudia. Orain non ote da?

Komertzioan ere saiatzzen zen. Astaitzagako iturrirre yoan astoa eta gurdiarekin, ure hartu eta trenetako yendeari saltzen zion.

Elizen bandeja pasatzekoan batzutan eskue yartzen zuen. Eskuñeko eskun bandeja eta ezkerrekoa tragoren bat egiteko. Ezbazitzion ematten "zimurrio, zimurrio" esaten zuen.

Hildakoren bati autopsia egin behar bazitzion hartan ere laguntzen zuen. Hara zer dion Kandidok: "Saldisko "Koskorro" arrapa-saltzallen atte dinbulike erori, amildu, eta Hollingo errekan hil huen. Errekaren erditik Leitzalderago zegoela eta honera ekarri zien autopsie ittea eta bakik gu ere motiko kozkorak eta erne. Saldisko horrek abarka berri-berrik zetien eta sankristabek berriz zarrak, pneumatiko puskekin iñek. Kendute yantzi zetien. Gero gu Aienera eta hure ere bai. Pako Aienekoa ohartu eta "zeiñenak die, zeiñenak die abarka horik?" galdezka eta sankristabek: "huuuuu, ixo, ixo". (1)

**SANKRISTABEREN LIBURUE**

Berak enterratutakoen, edo naiz kanpoan hil hemen elizkizunen bat egin zitzaien yendeen izenak ederki yasoak ditu. Liburu batean apuntatuak ditu etxearen izena eta guzi. Bakoitzari zer klasetako elizkizuna egin zitzaion ere badekar, aleye aurrenekoa, bigarrena edo hirugarrena. Garai hartan hiru klasetako elizkizunak egiten baitziren 1910 urtean hasi zen apuntatzen eta 1970 urtean bukatzen du. Beraz hirurogei urte luzeetako berriak dakazki. Norbait noiz eta zein etxetan hil zen yakin nahi duenarentzak dokumentu baliosoa da hau. Adibidez yakin nahi al duzue Martikoneko azkeneko kuranderoa, Joan Patxiku, noiz hil zen? 1917-ko martxoaren 31an hil zen. Hona beste izen batzuk:

|  |                          |
|--|--------------------------|
| Eztabekoko attuna, Bautista Sukuntza, trenbidetan lanean ari zen batek hil zuena ..... | 1913-ko martxoaren 7an   |
| Don Jose Joakin Tirapu, abadea .....   | 1926-ko abenduaren 7an   |
| Don Inazio Lizarraga, apezka .....   | 1931-ko hilbeltzaren 3an |
| Ebaristo Elduayen, ziztularia .....  | 1931-ko irailaren 10ean  |
| Lazaro Bengoetxea, bertsolaria .....   | 1931-ko azaroaren 24an   |
| Don Manuel Erdozain, apezka .....  | 1935-ko abuztuaren 13an  |
| Oxemari amerikanoa .....   | 1947-ko irailaren 16an   |
| Don Luis Yaben, abadea .....   | 1948-ko azaroaren 21ean  |
| Kristobal Arribillaga, "Beñis" berts. ....   | 1953-ko apirilaren 30ean |

### SANKRISTABEREN LANEKO URTEBETZEAK


Oxemiel sankristabe 1884-ko ekainaren 17an yayo zen eta 1972-ko abuztuaren 20an hil zen. Beraz 88 urterekin hil zen. Eta urte horietatik ia 70 sankristabezkoan aritu zen. Hark ez zuen "jubilacion anticipadrik" hartu. Gauze zen artean eutsi zion bere karguari.

Joantxo Elordinak kontatu dit bere garaian periodikoak ekarri zuela Oxemielek bazeramazkiela hirurogei urte baino gehiago sankristabezkoan. Hau irakurrita Goizuetar batek hala esan omen zuen: "Onezkero intzentsu usai ederra bazeukek".

Sankristabezkoan hasi zeneko urtebetetzeak ahaztu gabe ospatzen zituen:

|                               |                              |
|-------------------------------|------------------------------|
| 1922-ko abenduaren 17an ..... | zilarrezko eztaiak           |
| 1927-ko abenduaren 17an ..... | brontzeko eztaiak            |
| 1937-ko abenduaren 17an ..... | berrogei garren urtebetetzea |
| 1947-ko irailaren 29an .....  | urrezko eztaiak              |
| 1958-ko irailaren 29an .....  | diamantezko eztaiak (2)      |

Bere liburuan ematen digu egun hauen berri: "Diciembre día 17 de 1922. Se ha celebrado Bodas de plata por haber cumplido 25 años al servicio de sacristán. Celebrando los 4 sacerdotes en mi favor Misas, dando estipendio a 4 pts., que son D. José Joaquín Tirapu, Abad, y los dos coadjutores D. Manuel Erdozain y D. Ignacio Lizarraga y el cuarto D. Eugenio Babaze, organista. La Misa Mayor ha sido solemne



con cantores mayores, que son: D. Antonio Lasarte, D. José Luis Huarte, D. Francisco Azpíroz y D. Nazario Lizarza. Este día, tercer domingo del mes, Minerva. La procesión ha sido con los cantos solemnes por el atrio. Dios nos guarde por muchos años. Soy el servidor, José Miguel Gogorza, Sacristán.

Diciembre día 17 de 1927. Se ha celebrado segunda vez Bodas de Bronce por haber cumplido 30 años en el servicio de Sacristán. Celebrando los cuatro sacerdotes Misas a mi intención y además todos los hijos de Leiza Sacerdotes y religiosos dando estipendio a 4 pts. Dios nos guarde por muchos años. José Miguel Gogorza, Sacristán.

Se ha celebrado tercera vez Aniversario por haber cumplido 40 años en el servicio de sacristán el día 17 de diciembre de 1937. Soy José Miguel Gogorza.

Se ha celebrado Bodas de Oro el día 29 de septiembre de 1947 porque se han cumplido 50 años en servicio de sacristán. La Misa Mayor se ha celebrado con toda solemnidad. Ha asistido Ilustre Ayuntamiento con la Bandera y chistularis y Ezpatadanzaris. En el ofertorio se ha tocado la mar-

## PLAZAOLA



rrerakoan danda bakarra.

Ezkille yotzen ari zenean atxoteko yotzen zuen: "mutilzar-neskazar, neskazar-mutilzar, mutilzar-neskazar..."

Hurrezkillle: "aingeru-zerure, aingeru-zerure, aingeru-zezure..."

Ereta-soñukin, harri-yasa heldu zenen: konjurioko ezkilllek.

Errezkille yotzen hasi eta sue indartzen ari bazen presakago yotzen zuen.

Elizekoak emattekoan lau danda yotzen zituen, oso des-pazio. Linterna haundi batekin yoaten ziren elizekoak ematea eta zintzarria yotzen zutenean yendea belauneko yartzen zen.

cha de San Ignacio y en la consagración Marcha Real. Después de la Misa, cantos de San Miguel. Después dos partidos de pelota, uno, dos monaguillos contra dos tiples y otro dos Mayores a bale y a pedradas, a ganar Premio. Después se han divertido de espata-danzaris. Todas las Misas que se han celebrado en esta Parroquia han sido a mi intención. El Banquete ha sido en el Círculo. El Arco del Pórtico se ha adornado con ramas verdes y con pasas y en el centro Angel San Miguel.

Se ha celebrado Boda de Diamante el día 29 de septiembre de 1958 porque se cumplirán 61 años en el servicio de sacristán".

### EZKILLE YOTZALLE APARTA

Bateri yotzalle onak bateria yotzen duen bezain haise yotzen zituen hark ezkilllek. Izanez ere hainbeste urtetan aritu zen! Eta ezkillle yotzeko orduekin oso zintzoa zen. Behar zen ordurako hure beti han.

Goizeko seiterdian yotzen zuen argiezkille. Ilunabarrean amaiezkille. Meza nagusie yotzen zuen alde batera, bezperak bestera eta prozesioa bestera. Agoniokoa, hillezkillek, ezkillle botatzea, mezerdiko dandak, elizekoak emattekoan, errezkille, kandela...

Meza yotzen zuen ordu erdi bat aurretik eta meza sarrerarako hoge minutu falta zirela hiru dandak; hamar minutu falta zirela bi dandak eta meza-sa-

Animen egunean denentzat mezak ateratzen ziren eta hiru aldetara yotzen zituen ezkilllek: apeza, moja edo fraileentzat, lau aldiz; gizasemeentzat, hiru aldiz eta emakumeentzat bi aldiz.

### KANDELA (SUBASTA)

Eguerdiko mezondoan izaten zen kandela. Lau danda yotzen zituen, oso banaka. Kandela esaten zaio lehenago kandela biztu eta itzali arte tantoak yotzeko denbora izaten zelako.


Kontsejuko mahai inguruan biltzen ziren alkatea eta herrigizonak eta batzar-salan basoa edo obra hartu nahi zuten kontratistak eta ekusmirera yoandako yendea ere bai. Albienteak yartzen zuen makilla lurrean etzanda. Sekretarioak irakurtzen zituen kandelaren baldintzak eta alkateak orduan:

- Iñor enkargatzen al da, jaunak?
- Ni yabetzen naiz, erantzuten do batek.
- Hamar tanto yotzen dazkiot, dio beste batek.
- Berriz alkateak: iñork meyoratu nahi al do?
- Bitartean albienteak galdetzen do hiru aldiz:
- Pasatuko naiz?, pasatuko naiz?, pasatuko naiz?

Hirugarrenean iñork meyoratzen ezpadu, makilla gaintetik pasatzeko agindua ematen dio alkateak eta albientea zorrotzaski pasatzen da, makilla yasotzen du eta bukatzen da kandela.

### ASTAITZ

(1) Leitzetik Goizuetarako kamioan, 21 kilometrotik bertan, gizon hau hil zen parean dago marmolezko harria: AQUI FALLECIO D. JUAN URRUTIA, DE SALDIAS, EL 19-II-1941 R.I.P.  
(2) Ospakizun hau aurreratu egin zuen. Oraindik 14 urte falta zitzaizkion 75 urte sankristabezkoan egiteko.



# Chimeneas **GAZTELU**

Sistemas de

**Calefacción  
AGUA Y AIRE**

**EXPOSICION:**

**Elgoien, 32 - LEITZA**  
(Navarra)

**CARLOS SAGASTIBELTZA  
VILLANUEVA**

ARQUITECTO TECNICO

**PROYECTOS • PRESUPUESTOS • REFORMAS  
CONTROL DE OBRAS • MEDICIONES DE  
TERRENOS • ETC.**

**TELEFONOS**  
OFICINA: 61 06 77  
DOMICILIO: 51 03 90  
MOVIL: 908 / 17 96 60



**TALLER DE CANTERIA**  
TRABAJOS EN PIEDRA Y MARMOL  
REVESTIMIENTOS DE FACHADAS DE PIEDRA  
ARCOS, ZOCALOS, ESCALERAS,  
FOGONES "ESTILO VASCO"  
CRUCES Y LAPIDAS  
CHIMENETAS Y TODA CLASE DE TRABAJOS  
EN PIEDRA

**TRANSPORTES**

LES DESEA FELICES FIESTAS

Telfnos.: Taller 51 04 47  
Domicilio 51 01 11

LEITZA (Navarra)



**Hotel**  
**BASA-KABI**

- cocina selecta
- comidas de empresa
- bodas y banquetes
- comuniones y bautizos
- amplios comedores
- salones
- amplio parking
- piscina

Alto de Leiza • Tfno.: 948 / 51 01 25  
31877 LEIZA (Navarra)

**FOTO**  
**MUGICA**  
**ARGAZKIAK**

MONTAJES DE  
IMAGEN Y SONIDO,  
COPIAS, ETC.

FOTOS CARNET EN  
EL ACTO  
MARCOS  
FOTOCOPIAS  
GAFAS DE SOL

**GRABACION**  
**VIDEO y**  
**FOTOS**

BODAS  
HOMENAJES  
FIESTAS

**ESTUDIO**  
**EN**  
**C/ OBISPO HUARTE**  
**TFNO. 51 04 40**  
**LEIZA**

**E R O S L E**

**Supermerkatua**

Tfno.: 51 00 36

**“BIOK” JANTZIAK**

Gizonezko, Emakume eta  
umeentzako jantziak.

Elbarren 32 kalea

**«GAZTETXO»**

Goxotegi eta jolas lekua

*Jai zoriontsuak  
opa dizkizue*

**JANARI DENDA**  
**ZABALETA**

JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE

TEL: 51 04 28

LEITZA

**TXOKO**

**Taberna, Jatetxea**  
Ostatua, mantenu osoa

JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE

Tel.: 51 02 27

**ARDOTEGIA**

**LENITZ**

ARDO ETA LIKORETAKO BILTOKIA  
INSALUS, SAN MIGUEL GARAGARDOA  
ETA COCA-COLAREN BANATZAILEA


FESTA ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE

TEL: 51 03 33

LEITZA

TXAPA  
PINTURA **LEITZA** KARROZERIA

TXAPA KONPONKETA, KABINAN EGINDAKO PINTAKETA  
ETA LABEAN EGINDAKO LEHORKETA, KOLPE HAUNDIEN  
KONPONKETA (BANKADA)



**MANDRILADORA  
LEIZA**

S. Coop. Ltda.  
JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE



Fabrika Geltokia A., z/g Tel.: 510.262 LEITZA

**TABERNA, ERRETEGIA  
MENDIZABAL**

Txuleta eta bisigu erretan espezialitatea  
JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE

Elgoien, 22 Tel.: 510.128 LEITZA

**Herbodietética BELARRA**

**Janari denda**

Elarren, 35  
Tfno. 51 01 92  
Leiza

*Jai zoriontsuak,  
opa dizkizue  
zorianak*

**GARAGE LEITZA**


AMAZABAL, 29 KALEA

BEREBILL KLASE GUZTIETAKO  
KONPONKETAK ETA EROSI SALDUKETAK  
PEUGEOT-TALBOT AGENTZIA  
JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE  
TEL: 51 04 66 LEITZA

**Astiz Zurgindegia, s.l.**

Sukaldeko eta bainuko haltazariak  
Pesta zoriontsuak opa dizkizue

Tel. 51 02 85 Leitza



**Carrocerías URTO**

Reparación de Chapa y Pintura

Jesús Azurmendi Jauregi

Casa Camineros  
BERASTEGUI

Teléfs. 943 - 68 32 43  
948 - 61 06 64

**Ignacio  
Arrarás**

Bodegón - Vinos, Sidra  
y licores  
Cervezas El León y Codorniu  
Jai zoriontsuak opa dizkizue  
Tel. 51 03 53

**SUCESIONES DE  
JOSE  
GOMEZ**

COMERCIO DE TEJIDOS  
Jai zoriontsuak opa dizkizue  
Tfno. 51 01 30

**Vda. de Lázaro Erviti**

SERRERIA MECANICA

JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE

Teléf. 51 00 08 LEITZA

**ARIZTIMUÑO ANAIK  
ERAIKINTZAK**

Lan orokorrak eta berrikuntzak

JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE

Tel.: 510.374

LEITZA

**BIKOITZ**

Gozotegia - Taberna

Tarta, pastel eta opiletan espezialitatea

JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE

Elbarren, 16

Tel.: 510.072

LEITZA

**ASTIZ**

LIBURUDENDA eta PAPERDENDA

Eskolarako eta kiroletarako gaiak

JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE

Elbarren, 28

Etxeko tel.: 510.405

**MAPFRE**

MUTUALIDAD DE SEGUROS  
Una organización a su servicio

Telefono: 51 04 99  
Jai zoriontsuak opa dizkizue



## GURATZ-MENDI

K. K. J. ELKARTEA

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Elgoien, 1

LEITZA

# ANA

JEUNERI DENDA

PESTA ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE

PATXI ARRAZOLA, 9 • LEITZA

## PELUQUERIA YOKINE

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Elbarren, 35 • Tfno.: 51 01 92 • LEITZA

GGGGGGGGGGGGGGGGGG

## PERURENA HARATEGIA

Hemengo zekorretan  
espezialitatea Urdaitegia

Tel.: 510.164

Jai zoriontsuak opa dizkizue

GGGGGGGGGGGGGGGGGG



## ERBITI AIZKORAK

Tomas Erbitiren alarguna  
Aizkol txapelketetarako  
aizkora garantizatuen fabrika

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Tel.: 510.060



AZPIROZ ETXEA

JANTZI DENDA

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Tel.: 51 02 46 LEITZA

## FOTO ULAZIA

REPORTAJES EN GENERAL  
ESKONTZAR ETA ABAR

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Urbanización Zizur, 43 • ZIZUR MAYOR

## RODRIGUEZ ETA ERASO LANTEGIA



RENAULT zerbitzua

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Tel.: 510.259

Elgoien kalea, 15

## "GARBI"

Garbigaidenda

Usaidenda eta

Jostailudenda

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Tel.: 510.173

PLAZA Autoeskola

SEGUROS - GESTORIA

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Huarte Gotzaia K., 8

Tel.: 510.338

LEITZA

## KOXME ZABALETA

Ultramarinos

Pesta onak opa dizkizuegu

LEITZA

## «ELKAR»

Ileapaindegiak

Pesta onak opa dizkizue

LEITZA

GAZTAÑAGA Taberna

Ogitartekoak, pintxo beroak, kaxuelak

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Tel: 51 04 34



## LEITZELARREA AROZTEGIA

Herrería, carpintería metálica

Elbarren, nº 58      Tel. 51 00 60  
31880 LEITZA (Navarra)  
JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE

## JOSE IGNACIO ARZALLUS

Harategia - Urdaitegia  
Etxeko Txistorra

Jai zoriontsuak opa dizkizue

LEITZA                      BERASTEGI  
Tel.: 510377                Tel.: 674534

## ARAKINDEGIA

### JATETXEA

Jai zoriontsuak  
opa dizkizue

Tel. 510052

## J.A. URKIOLA Harategia, Urdaitegia

Idi haragitan eta hemengo Zekorretan espezialitatea

JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE

Tel.: 510.467

LEITZA

# IGARATZA

Poligono Industrial Albisualde, s/n  
Tfno. (948) 50 44 10 • Fax (948) 50 44 40  
LECUMBERRI (Navarra)

### ERAIKETARAKO MATERIALAK

- P.V.C.zko. tuberiak
- Polietileno zko tuberiak
- Ormigoiezko tuberial
- Burdinlanak
- Adreiluak
- Porlana
- Igeltsoa
- Blokeak
- Mota askotako teilak

### ISOLAMENDUAK

- P.V.C.zko leihoak
- Teilatu faltsoak
- Segurtasun materialak

### MATERIALES DE CONSTRUCCION

- Tubería P.V.C.
- Tubería polietileno
- Tubería Hormigon
- Forjados
- Ladrilloa
- Cemento
- Yeso
- Bloques
- Teja varios modelos


### AISLAMIENTOS

- Ventanas P.V.C.
- Falsos techos
- Material de seguridad

AUREKONTUAK EGITEN DIRA

SE HACEN PRESUPUESTOS

KERAMIKA ETA BAINU, BAINUGELARAKO TRESNARIA, GRIFO ETA  
KOMUNAK, MANPARAK, ETA ABARREN ERAKUSKETA HANDIA.



**BANCO DE  
VASCONIA**

Leitzar eta bisitari guztiak  
pesta goxo batzuk pasa dezazuela

LEITZA

Tel.: 51 01 38

## Arrandegia Kaia

Pescados y mariscos selectos

*Jai zoriontsuak  
opa dizkizue*

C/ Elgoyen, 20  
Telf. 61 07 33

Leiza

## BELEN Oinetakoak

Jai zoriontsuak  
opa dizkizue

Calle Elbarren, 52  
**LEIZA** (Navarra)

## "PITXIK"

PAPERDENDA eta  
OPARIAK

Jai zoriontsuak  
opa dizkizue

## Gregorio Sagastibelza

Constructor y Albañilería  
en general

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Tel.: 51 00 59

LEIZA

## Jesús Buldain

Carnicería y Charcutería  
Tratante de ganado

Teléfono 51 01 67

## KAFETEGIA GOZOTEGIA NEKANE

Jai zoriontsuak opa dizkizue

SE RECOGEN ENCARGOS  
DE TARTAS Y PASTELES

Tel.: 51 03 28

LEITZA

## KORNIETA ELKARTEAK

Jai zoriontsuak opa  
dizkizue

LEITZA

## JOSE ETXEBERRIA

GIZONEZKOENTZAKO  
ILEAPAINDEGIA

Jai zoriontsuak opa dizkizue

LEITZA

Tel.: 510.282

## LIZARRAGA

### HARATEGIA

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Teléfono 51 02 83

CONSTRUCCIONES  
**SAGASTIBELZA  
Y ARTOLA**

Albañilería en general

Elbarren, 86-2.º izq.  
Tfnos.: 51 02 65 - 61 07 24

LEIZA (Navarra)

**IZOZTUEN ETXEA**

Todo tipo de congelados

- Precocinados,
- Marisco,
- Charcutería

Elbarren, 80 • Tfno.: 61 07 49

**GARCIARENA ARRAINDEGIA**

Eguneko arraiak

Jai zoriontsuak opa dizkizue


Elbarren, 73 • Tfno.: 51 05 90 • LEITZA

PINTURAS OROPAL

**F. J. Sáenz**

PINTURAS INDUSTRIALES Y DOMESTICAS

Tfno.: 51 00 49



**Azpiroz y  
Saralegui**

- Zerbitzu orokorreko herrilanak
- Eroate lanak
- Hirigintz lanak
- Indusketak
- Ormigo armatua
- Ormigoiezko errei eta arekak
- Obras públicas
- Conducciones
- Urbanizaciones
- Excavaciones
- Hormigón armado
- Viales y cunetas de hormigón

**CONSTRUCCIONES AZPIROZ Y SARALEGUI**

**OFICINAS**

Alfonso el Batallador, 8  
31007 PAMPLONA  
Teléfonos: (948) 17 48 32  
17 48 33

Polg. Industrial Albisualde, s/n.  
31870 LEKUMBERRI (Navarra)  
Tfnos.: (948) 50 11 12

DROGUERIA-PERFUMERIA  
**MARIA ANGELES**

Tel. 51 01 86

LEITZA (Navarra)

**LEITZARRA** Taberna

IREKITA GOIZEKO 7,30ETATIK  
Tel.: 51 03 52

JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE

**TALLERES  
LAZCANO**

Venta y reparación de todo tipo de  
maquinaria agrícola, bicicletas y motos

*Jai zoriontsuak opa oizkizue*


Gorritzaran, 41 Tfno. 51 04 04 LEITZA

KAFETEGI  
EDARITEGIA

**XAXARI**

*Jai zoriontsuak opa dazkizue*

Elcoyen, 6 Tif. 51 03 75 LEITZA



**SARRIOPAPEL Y CELULOSA, S.A.**

*Jai zoriontsuak opa dizkizue  
Herritar eta bisitari guztiei*


Urtez urte,  
egunero egunero,  
GORA LEITZA!

"FOTO MUGIKA"



**GANI**

**NAFARROAKO AURREZKI KUTXA**



**JAI ZORIONTSUAK  
OPA DIZKIZUE**

